

Herririk Herri

Tabira Musika Bandak eta euskalgintzak txupinazoa bototzeagaz batera, gaur abiatuko dituzte Durangoko San Fausto jaia > 2



Lehior Elorriaga

Ameriketatik Zornotzara, saskibaloiaz gozarazteko asmoz > 4

> Sasa Borovnjac, Tre Bowman eta Juan Coronado Zornotza Saskibaloia Taldeak egin dituen hiru fitxaketa izarrak dira.

Auzokideak haserre karkaben erabilera dela-eta > 3

DAZek dioenez, Durangoko taberna batzuk karkabak erabili zituzten biltegi moduan Goienkaleko jaietan, eta sanfaustoetan gauza bera egingo dutela uste du elkarteak. Izan ere, +Dendak elkartearen eskariz, udalak baimena eman die tabernei jaietan karkabak biltegi bihurtzeko.

Gauzez ez da eztandarik izango Gaztelua auzoan > 6

Abadiñoko alkateak azken udalbatzarrean azaldu zuenez, Gazteluko obretako enpresekin akordioa adostu du, gauzez, sei orduz, lanik ez giteko. Bizilagun batzuek diotenez, bi-hiru orduko eztandak eta 24 orduz kamioien joan-etorriak sufritzen dabilta; udalak kasurik egin ez izana salatu dute.

Durango > 2

ELAK dioenez, Durangoko udalak "kontratazio ilegalak" egin ditu dirua aurreztu guran

Durangaldea > 9

Komertzioen ordutegien liberalizazioa kritikatu dute

Izurtza > 6

Trafikoa handitzen duen erabakia kritikatu du Izurtzako Udalak

Iurreta > 8

Maspe iurretarrek aparkatzeko gorde dezatela eskatu dute



KOART

Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak

Fabrikatzaileak gara, eta espazio bakoitzaren neurrirako irtenbideak topatzen ditugu

Eitua ind., 9 - 6 behea - BERRIZ - Tel. / Faxa: 946 826 879

> Herririk herri

ELAk dio kontratazio ilegala egin duela udalak, dirua aurrezteko

Udalaren eta Zabaltzen-Sarturen kontra jo du ELAk

📍 DURANGO Markel Onaindia
ELA sindikatuak udalaren eta gizarte esku-hartzea bultzatzen duen Zabaltzen-Sartu elkartearen aurka jo du, Enplegu Planeko langileen lagapen ilegala egin dutela uste duelako. Gainera, kritikatu du dirua aurrezteko izan dela kontratazio horren helburua. Izan ere, brigada lana egiteko behargin horiek –peoiak eta ofizialak– ez dituzte udal hitzarmenpean hartu, soldata baxuagoak ezartzen dituen erakuntza arloko hitzarmen orokor baten menpe baizik. Batez beste, 3.000 euro gutxiago jasoko dituzte sei hileko epean. ELAko Iñaki Arrietak eta Jose Ramon Lasargurenek eskuetan hainbat paper zituztela eman zituzten azalpenak: “Durangoko Udalak, kostuak merkatzeko asmoz eta

lantaldea handitu gura izan bari-
rik, legez kanpoko lagapen bati
zerbitzu kontratu itxura eman
gura izan dio". Sindikatuak
erreklamazioa ipini du udalean,
eta Zabaltzen-Sarturen kontra
gatazka kolektiboa zabaldu du.

“Ilegala zela jakinda”

Eusko Jaurilaritzak bultzatuta-ko Enplegu Plana dago gatazka-
ren oinarrian. Langabetuak sei
hilerako kontratatzeko diru-la-
guntzak eman ditu, eta Lanbide-
ren bitartez gestionatu da gaia.
Durangoko Udalak 162.000 euro
jaso ditu hamahiru pertsonari
lana emateko, eta herriko insta-
lazioak eta parkeak konpontze-
ko zeregina eman die. Dagoene-
ko beharrean daude.

Zabaltzen-Sartuk kontratatu
ditu langile horiek, eta gero uda-



Arrieta eta Lasarguren, equaztenean eskainitako prentsaurrekoan.

lari laga dizkio. Horretarako, erakunde biek hitzarmen bat sinatu zuten. Udalak aparteko 60.000 euro eman dizkio elkarteari, koordinazio gastuengatik eta gainkostuengatik. Baina ELAko kideen arabera, Zabal-tzen-Sartu ez da aldi baterako laneko enpresa bat, eta, beraz, ezin du beharginik laga aldi baterako. Gainera, gogoratu dute bere jarduera ez dela obra zibilekoa edo eraikin publikoak mantentzekoa. ELAren iritziz,

“egitera zihoazena ilegala zela jakinda egin dute”. Auzitegi Gorenak sententzia kaleratuta dauka, diru-laguntzak jaso, eta lan hitzarmena bete ez dutenen kontra. Horregatik, Zabal-tzen-Sartu hori egiteko alternatiba lez erabili dutela uste dute sindikatukoek.

Brigadan, langile beharra

Salaketa oraindik eta larriagoa da, ELAk brigadako lantaldeari buruz esandakoa kontuan har-

tuz gero. 27 lagunek osatzen dute brigada, eta gaur egun zazpi daude bakan. “Bi, urtetan daude bakan, eta besteak hiletan”, esan du Lasargurenak. ELAren berbetan, hutsune horiek langileen karga handitu dute, eta taldean pertsona berrien beharra dago.

Enplegu Planeko egitasmoa PSE-EEren ekimenez garatu da. Horregatik kritikatu du ELAk alderdi sozialista, baina baita beste alderdiak ere, egitasmoari aurrera egiten uzteagatik.



laz bezala, aurten ere ekitaldi ugari egongo da jaietan.

Musika bandak eta euskalgintzak piztuko dituzte San Fausto jaiak

Gaur iluntzeko 20:00etan hasiko dira 2014ko San Fausto jaiak txupinazoagaz

DURANGO *M.O.na*india
Padatoz Patxikotxu eta Pan-
txike. Gaur iluntzean hasiki-
dira 2014ko San Fausto jaiak,
Tabira Musika Bandak eta eus-
kalgintzak piztuko dituztenak.
19:30ean San Fausto auzotik
udaletxeraino kalejiran eroango
dute Patxikotxu, 20:00etan jaiari
hasiera emateko. Aurten Tabira
Musika Bandakoek dute txu-
pinazoa botatzeko eta pregoia
irakurtzeko ardura. Hasiera
ofiziala eta gero, 21:00etan, txos-
nagunearen txanda izango da,

Pantxikegaz. Bertan, Euskalgintzako zenbait elkarte batzen dituen Guka mugimendukoek zabalduko dute Pinondoko festa.

Hortik aurrera jai giroan murgilduko dira durangarrak, urriaren 19ra arte. Gaur gauez, esaterako, Dinero, Minor Empires eta La M.O.D.A. taldeen kontzertuak egongo dira txosnagunean. Bihar, zaldi jauzi proba egingo dute Zuhatzola parkean, 10:00etatik 17:00etara, eta 13:00etan txupinazo txikia jaurtiko dute Mugarra Triatlloi Es-

kolakoek. Gainera, Gazte Eguna ospatuko dute. Domekan, martitako txapelketa egongo da Landako Gunean, eta, 17:00etan, herri probak txosnetan.

Astelehenean artopilen bana-
keta egingo dute, 12:30ean, San
Fausto egunez. Pinondon, paella
txapelketan parte hartzeko deia
egin dute. 17:00etan, ohiko erre-
ka jaitsiera ere ez da faltako.

Lehenengo asteburuaren ostean, Disfraz Eguna eta Elkartasun Eguna zain daude hurrengorako.

Laguntzaileak:

[illegible]

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko urriaren 10a,
12. urtea - 561. alea

Zuzendaria:
Jones Guenetxea Arrinda.
Administrazio buroia:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretzi Alonso
Armendia, Amaia Huarte Basabe,
Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri
Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onandia Txabarri
eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zalaoa Fuertes, Lohior Elorriaga.

Lege gordailua: PL-2368/01 ISSN: 1578-7038 Tirada: 11.500 alea

Auzokideak haserretu dira, tabernek jaietan karkabak erabiltzearen

Karkabetan gauzak pilatzea arriskutsua dela diote

DURANGO Markel Onaindia Jaiekin batera karkaben inguruko eztabaida piztu da. Alde Zaharreko auzokideen DAZ elkarteak azaldu duenez, taberna batzuek karkabak biltegi moduan erabili zituzten Goienkaleko jaietan, eta San Fausto jaietan ere gauza bera egingo dela entzun dute. Eta haserre daude. Karkabak etxe askoren larrialdi irteerak direla-eta, bertan gauzak pilatzea arriskutsua dela uste dute. Auzokide batzuek zaborrak ere pilatu izan direla kritikatu dute. Etxeen artean daude karkabak, ia ezkutuan; baina arazoa ez dago ezkutuan.

Prentsa ohar batean gaiagaz lotutako hainbat galdera eta kezka plazaratu ditu DAZek, batez ere udalari begira. Adibidez, jarduera horrek araudia betetzen ote duen. Izan ere, udal ordenantzak karkabetan oztopoak egotea galarazten du. Baimenik eman bada, zergatik eta zelako baldintzatan eman den jakin gura dute. Larrialdi edo sute egoeren aurrean sortu ahal den arriskuaz ere ohartarazi dute: “Karkabak erabiltzeak ekar litzakeen ondorioen erantzukizuna nork hartuko luke, zein

departamentuk?”. Gainera, karkabak eremu publikoa dira, eta baimena “komertzio pribatuen mesedetan” ematen dela kritikatu dute.

Baimena, baieztatuta ANBOTOn galderei erantzunda, udalak baimena eman duela baieztatu du. Dendak Bai elkarteak egin zuen karkabak biltegi moduan erabiltzeko eskaera, otsailean. Merkatariek diotenez, taberna batzuei jaien bueltan edukitzen duten jenero guztia ez zaie biltegietan sartzen. Eskaeraren harira, Hirigintza Batzordeak batzar bi egin zituen, eta onartzea erabaki zuten: “Gehiengoa alde agertu zen, eta ez zen kontrako botorik egon”, adierazi dute udal ordezkariak.

Baimena ematerakoan baldintzak ipini zizkieten: “Erabilera egokia egitea eta ordutegi zehatzetan erabiltzea, auzokoei eragozpenik ez sortzeko”.

DAZeko presidente Jose Mari Arrillagak adierazi du legea aldatu gura badute, osoko bilkuran alda dezatela: “Gauza



Karkabetan materiala gordetzeko baimena daukate tabernek.

bat edo bestea da: legea bete edo ez”. Karkabak eremu publikoa izan arren, ez daukate erabilerarik publikorik. Sarbideak itxita daude, eta gainera baldintza



“Gauza bat edo bestea da: legea bete edo ez”

JOSE MARI ARRILLAGA

txar eta zikinetan daude. Etxeak aireztatzeko egin zituzten karkabak, Alde Zaharra sortzean. Balio historikoa kontuan hartuta, birgaitzearen alde dago Arrillaga, gero jendeari erakusteko. Udalak ere sarritan aipatu du proiektua, baina oraindik bi bakarrik konpondu dituzte.

Herriko parkeetan aterpeak ipintzeko eskaera egin dute

Guraso batzuek ‘www.change.org’ webgunean sinadura bilketa hasi dute, aterpe eske

DURANGO M.O.

“Durangon euria egiten du urteko 180 egunetan, batez beste, eta 3.938 ume daude errolatuta. Nora doaz umeak euria egiten duenean?”. Galdera horregaz hasten da guraso batzuek *www.change.org* webgunean egin duten sinadura bilketarako deia. Aitziber Irigoras alkateari

zuzenduta, herriko parkeetan aterpeak ipintzeko eskatu dute.

Azaldu dutenez, Durangoko hamar parkeetatik bakarra ere ez dago estalita. Beste zenbait herritan aterpeak egiten hasi direla ere adierazi dute. Horregatik guztiagatik, eskaera “arrazoizkoa eta beharrezkoa” dela uste dute.



Ezkurdin umeentzako zabuak daude, aterpe barik.

2.000 turistatik gora izan dira udan Durango bisitatu dutenak

DURANGO M.O.

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, aurtengo udan 2.000tik gora turista egon dira Durangon. Hori da behintzat turismo bulegoan jaso duten datua. Uda amaituta, sasoi horretako balantzea egin dute. Bulegoan bertan 2.126 bisitari hartu dituzte. Turisten erdia Euskal Herrikan kanpokoak izan da –gehienak, %24, katalanak–, eta beste erdia hemengoa.

Abuztua izan da turismo bulegora jende gehien joan den hilea. Izan ere, 987 kontsulta egin dituzte. Hainbat lekuk piztu dute jendearen interesa: Kuruzesantu Museoa, Arte eta Historia Museoa, ostalaritza zerbitzuak eskaintzen dituzten guneak, Urkiolako parke naturala, eta Argiñeta zein Momioitioko nekropoliak, adibidez. Bulegoan antolatutako bisita gidatuei buruzko informazioa ere eskatu dute turistek, esan dutenez.

Txosnen lekua adosteko batzar proposamena

DAZek idatzia sartu du udalean txosnak Pinondon kokatu izana kritikatzeko. Auzokideek diotenez, “akordio bat dago txosnen kokapen lekua txandakatzeko, baina ikusten dugu aurten praktikan positiboa zena, eta hitzartutakoaren kontra, ez dela horrela izango”. Gaineratu dutenez, “txosnetako ordezkariak adierazi digute eurak prest dau-

dela, orain arteko guneetatik aparte, beste aukera batzuk aztertzeko, baina behar den moduko txandakatzea bada”. DAZek dio auzokideak “haserre” daudela, uste dutelako apurtu egin dela adostutako lekuetan txandakatze sistemarako hitzarmena.

Egoera honen aurrean, DAZek uste du jaiak amaitutakoan inplikaturik dauden artean balantzea egin beharko litzatekeela, eta hortik abiatuta adostu beharko luketela datorren urtean txosnak non kokatu, txandakatze sistemari eutsita.

Ekoden

Gure klinikan
Diagnostiko
Aurreratua egiteko

HORTZ
SCANNER-a

darabilgu

80€

Bigarren planifikazioa zure inplanteetarako

Sistema berria gure eskualdean

INPLANTE BEREZIAK

15% -rainoko **DESKONTUAK**

WEB GUNEKO TARIFETAN
Kontsultatu gure tarifak hemen:
www.clinicaekoden.com

* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketetarako, banku-finantzaketa kudeatzen dugu.

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

36 HILABETE
ARTEKO
FINANTZAKETA
INTERESIK GABE*

Deskontu bonuak aterako dituzte, merkataritza sustatzeko

30 euroko erosketa egin ahalko da hogeï euro bakarrik ordainduta

ELORRIO Markel Onaindia *Dendarik denda* kanpaina ipini-ko dute martxan astelehenean. Herriarrentzako kontu bonuak aterako dituzte, udalak eta Elorrioko Merkatarien Elkar- teak (EME) sustatuta; horrela, 30 euro balio duen erosketa ho- gei euro bakarrik ordainduta egin ahalko dute. Ana Otadui alkateak eta Aitor Eguren mer- katarien elkarteko presidenteak aurkeztu zuten kanpaina aste- lehenean, turismo bulegoan. Merkataritzaren egoera ez dela erraza ulertarazi zuen Otadui- k: “Badakigu zein egoeratan da- goen merkataritza, eta susper- tzeke egingo dugu kanpaina”.

1.000 bonu aterako dituzte, eta hemezortzi urtetik gorako herriar bakoitzak bina hartu ahal izango ditu. Turismo bule-

goan EMEk kontratatutako per- tsona bat egongo da 10:00etatik 13:00etara, eta bertan emango dituzte txartelak. Jendeak ez du han ordaindu beharko; denda-

egingo diote kontua. Gaine- ra, bonu biak erosketa berean erabiltzeko aukera egongo da. Falta diren hamar euroak uda- lak emango dizkie merkatariei.



Udaleko eta EMEko ordezkariak, astelehenean egindako aurkezpenean.

Azaroaren 30era arte egongo da martxan kontu kanpaina, baina bonuak lehenago amai- tzeke aurreikuspena egin du- te, alkateak aurreratu zuenez. Egurenek ere “lau bat egunetan amaitzea” espero du. EME ez dauden komertzioak ere gehitu ahal dira kanpaina honetara, eta, dendariez gainera, herri- tarrek ere kanpainan parte hartzera gonbidatu zituzten an- tolatzaileek.

Otadui, EAJren hautagai Batzar Nagusietako presidentetzarako

ELORRIO M.O.

Ana Otadui Elorrioko alkatea da 2015eko foru hauteskun- deetan Batzar Nagusietako presidente izateko EAJren hautagaia. “Ilusionatuta na- go”, adierazi du Otadui al- bisteia kaleratzerakoan, baina gogoratu du oraindik Bizkaiko militanteek berretsi beharko dutela bere hautagaitza.

Gainera, duela hilabete ba- tzuk publiko egin zen udal hauteskundeetarako jeltzaleen hautagaia ere badela Elorri- on. Baina gai hori oraindik az- tertzeko daukatela azaldu du. Kargu biak lortuz gero sortuko litzatekeen egoerari dagokio- nez, bere ustez bateragarriak dira funtzio biak. Baina “Elo- rrioko EAJko batzarrak eta ba- tzordeak erabaki beharko du”.



ANA OTADUI

“Esker oneko nago nigan jarri duten konfiantzazatik”

Kiroldegiko bonua duten gazteei diruz lagunduko die udalak

18 eta 25 urte arteko gazteei zuzendutako laguntza da udalak proposatu duena



Kirola egiteko diru-laguntzak jaso ahalko dituzte gazteak.

ELORRIO M.O.

Kiroldegiko bonu integrala eta igerilekua erabiltzeko bonua daukaten gazteek udalaren diru- laguntza jaso ahal izango dute. 18 eta 25 urte arteko gazteei zu- zendutako laguntza da, eta inte- resdunek udaletxean egin behar dute eskaera. Aurten izen-eman izana egiaztatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute.

Udal ordezkariak azaldu du- tenez, aurten aldaketa egon da bonu familiarraren gastuan. Orain arte 21 urte artekoak

sartzen ziren eskaintza familia- rrean, baina aurten 18 urtera artekoak bakarrik sartuko dira. Konpentsazio lez proposatu du udalak laguntza, “familien bo- nuetan izandako aldaketak era- gin duen kostuaren igoeraren parte bat konpentsatzeko eta eu- ren erosteko gaitasuna hobetzen

21 urte artekoak sartzen ziren eskaintza familiarrean, baina aurten 18 urtera artekoak soilik

laguntzeko, jasaten duten presio fiskala murriztuta”. 4.000 euro- ko aurrekontua dauka udalak laguntza finantzatzeko.

Udalak garapen teknikoko zerbitzua kontratatuko du ekonomia sustatzeko

Udalak “jarrera aktiboa” izan gura du herriko ekonomiaren garapenean

OTXANDIO Joseba Derteano Udalak garapen teknikoko zerbitzu bat kontratatuko du, Otxandioko garapen ekonomi- koaren ardura izango duena. Azken udalbatzarrean kontra- tazioaren baldintzak jasotzen dituen baldintza orria onartu zuten aho batez. Urte bitan ba- natuta, 45.000 euro bideratuko dituzte asmo horretara.

Gobernu taldeko Peio Otxan- diano zinegotziaren (EH Bildu) esanetan, “erabaki estrategikoa da, urtetan datorren gogoeta

baten ondorioa”. “Testuinguru ekonomiko gordin eta aldako- rra bizi dugu, eta ezin gara geldi egon; udalak jarrera aktiboa izan behar du”.

Esaterako, ekonomiaren mo- torra izan den bigarren sektorea “egoera zailean” dagoela azaldu zuen: “Bertako industriak abe- rastasuna sortzeko zuen ahal- mena murrizta da gaur egun”.

Garapen teknikoko zerbi- tzuak izango dituen zereginen artean bigarren sektorearen monitorizazio lana egitea eta

etorkizunera begirako aukerak aztertzea dago. Bestetik, he- rrian martxan dauden herrigin- tza prozesuei sostengu tekniko- eskainiko die; esaterako, ener- gia berriztagarriak ustiatzeko bidean biomasa eta biogas egi- tasmoak gauzatze fasean jartzea izango da zereginetako bat.

Gainera, turismoari begira Otxandiok baditu indarguneak. Horrela, turismoa lehen eta bigarren sektoreen arteko si- nergiak sortzeko bitarteko izan daitekeela uste dute.

‘Slackline’-ari buruzko ikastaroa hasiko dute

Urriaren 12a arte eman daiteke izena

OTXANDIO J.D.

Hilabete honetan hainbat ikas- taro abiatuko dira, udalak anto- latuta. Denetan, urriaren 12ra orduko eman behar da izena, udaletxean. Horietako batean *slackline* izeneko kirolean sa- kontzeko aukera egongo da. *Slackline*ak soka baten gainean oreka mantentzea du helbu- ru. Urri erditik azaro hasiera- ra izango dira eskolak, eguaz- ten arratsaldeetan, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroak hamar euro balio du Otxandion errol-

datuta daudenentzat, eta ha- mabi gainerakoentzat. Josketa, kontserba eta eskulan ikasta- roak ere badaude aukeran.

Euskara ikasteko laguntzak AEKn euskara ikasteko aukera zabala eskaini dute: hasibe- rrirentzako mailak, zein erdi eta goi mailetako euskara mailak daude aukeran. Otxandioko Udalak matrikularen kostua- ren %100 berreskuratzeko au- kera eskaini du. Izen-ematea udaletxean egin daiteke.

“Aurrekontuak proiektu barik eskatzen badira, obra garestitu egiten da”

Sandra López de la Oliva eta Endika Berezibar Beretek arkitektura teknikoko bulegoko parte dira



Zelan sortu da Beretek?

Endika Berezibar: Hasieran ni bakarrik hasi nintzen, eta beranduago Sandra nire ikaskideari proiektuagaz bat egin gura ote zuen galdetu nion. Horrela etorri ginen Ibaizabal auzuneko lokal honetara.

Zer zerbitzu eskaintzen du Beretek?

Sandra López de la Oliva: Litzentzia eta diru-laguntzen tramiak, jarduera proiektuak, birgaitzeak, berritzeak, Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT),

Eraikinen Ebaluazio Txostenak (EET), Eraikinen Energia Kalifikazioak (EEK), aurrezte energetikotarako birgaitzeak, obra berriak, adituaren txostenak, legeztapenak eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu.

Obra bati ekiterakoan, lana profesionalen esku uztea hasieran gastua izan daitekeen arren, epe luzera aurrezteak eragin dezake, eta, bide batez, lana erraztea.

E.B.: Bai, jendeak obra bat egin behar duenean arotzei edo eraiki-

kitzaileei aurrekontuak eskatzea izaten da ohikoena. Sarritan, obran egin beharrekoa zer den ez da gehiegi zehazten, eta horrek obra garestitzea eragiten du askotan. Proiektua idatziko duen teknikaria aurretik badoa, aldiz, arotzek eta eraikitzaileek bada-kite zeren inguruko aurrekontua egin behar duten, eta obran sortzen diren ezustekoak gutxitu egiten dira.

Beretek dagoen bulegoan beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzue.

S.L.: Urbanismoan eta eraikuntzan jarduten duen arkitektura teknikoko bulegoagaz batera, bulegoan arkitektoak ere badi-tugu. Interiorismoarako dekoratzaile talde batez dihardugu. Obren kontrataziorako eta aholkularitza legalerako, berriz, abokatu bat ere badaukagu.

“Jarduera proiektuak negozioaren arabera ezaugarri ezberdinak ditu”

Ingurumen arloan ere badiharduzue. Zer eskaintzen duzue?

E.B.: Eraikinen energia kalifikazioen inguruko zerbitzua eskaintzen dugu. Era berean, laguntza behar ez duten eraikuntzen eta eraikuntza jasagarrien inguruko aholkularitza eskaintzen dugu. Eguzki panelak, panel fotovoltaiakoak, biomasa eta geotermia sistemak erabiltzen ditugu.

Energia ziurtagiriak egiten dituzue?

S.L.: Salgai edo alokairuan dauden etxeek eta lokalek behar izaten dituzte. Eraikuntza baten edo bere zati baten efizientzia energetikoa aztertzen da, eta A mailatik G mailara bitarteko kalifikazioa jartzen zaio. Gainera, hobekuntzak proposatzen ditugu, eraikina energia aldetik efizienteagoa izan dadin.

Durango Landako Gunean antolatutako Berdeago azokan izan zineten. Zelako esperientzia izan zen Beretekeko teki-karientzat?

S.L.: Esperientzia positiboa izan zen. Landako Gunean antolatu zen azken azokan postua jarri genuen, ingurumen arloan eskaintzen ditugun zerbitzuak zeintzuk diren azaltzeko.

Beste azoka batzuetara joaten zarete?

E.B.: Ekobira azokan izan ginen Mutrikun eta Zumaian. Gure lana ezagutarazteko modu ona izaten da.

Jarduera proiektua eskuratzekoak negozioen jabeei buruko min handia eragiten die.

S.L.: Negozio bat zabaltzen denean, udaletxean proiektua aurkeztu behar da irisgarritasun, sute eta soinu aldetik indarrean dauden araudiak betetzen dituela ziurtatuz. Jardueraren arabera proiektu horrek ezaugarri bat edo beste izan dezake, eta garrantzitsua da teknikoki egoki osatzea.

Hirune ile apaindegiko obra egin du Beretek enpresak


Durango Frai Juan Zumarraga kalean dagoen Hirune ile apaindegiko obra Beretekek kudeatu du. Endika Berezibarrrek dioenez, proiektu honetan bereizita zeuden lokal bi batu dituzte: “Lokaletako batean arropa denda bat zegoen, eta bestean bakailao denda bat. Biak batu ditugu, espazio bakkarra sortzeko”.



Obra egin aurretik, horrela zegoen lokala.



Hirune ile apaindegia, obraren ostean.



BERETEK

ARKITEKTO TEKNIKOEN BULEGOA

- Jarduera proiektuak
- Eraikinen patologia txostenak
- Peritazioak
- Legeztapenak
- Birgaitze eta berritzeak
- Obra berriak
- Proiektuak
- Obren zuzendaritza
- Obren gauzatze zuzendaritza
- Hirigintza

- EIT-ITE Eraikinen ikuskapen teknikoak
- EET-IEE Eraikinen ebaluazio txostenak
- EEK-CEE Eraikinen energia kalifikazioak
- Aurrekontuak, neurketak, zuinketak.
- Andamiatzeak
- Kalitate kontrola
- Igogailuak eta plataforma jasotzaileak

666 025 143 / 622 745 419

endikaberetek@gmail.com

Ibaizabal auzunea, 5. zkia behe

48.200 Durango (Bizkaia)

www.beretek.es

Gazteluko obretan gauez sei ordutik lanik ez egiteko konpromisoa

Obran diharduten enpresekin akordioa lortu duela esan du Navarro alkateak

ABADIÑO Itsaso Esteban

Joan zen asteko udalbatzarreko galdera eta eskarien tartean Bilduk eztabaidara eraman zuen Gerediaga-Elorrio autobide tarteko obrek Gazteluko auzokideei eragiten dizkien kalteen gaia. Aitor Azueta zinegotziak esan zuen hilabeteak daramatzatela gauez “eztanda ilegalak egiten”, eta Jose Luis Navarro alkateari galdera egin zion: “Badaukazue ezer egiteko asmorik?”. Bilduk salatu zuenez, ingurumen arloko legediaren kontrakoa da, Gaztelua auzoko obretan egin duten bezala, gauez horrelako lanak egitea.

Jose Luis Navarro alkateak, Bilduren galderari erantzunez, udalak obretan diharduen enpresa taldeagaz akordioa lortu berri duela esan zuen.

Alkatearen berbetan, akordio horren arabera, gauerdia eta goizeko seiak artean eztaundarik ez egiteko eta kamioien joan-etorriak gauez gelditzeko konpromisoa hartu dute obrako arduradunek. Jose Luis Navarro alkateak azaldu zuenez, auzotarren kexak medio, enpresari espediente zabalatzeko lehen urratsak eman zituen hasiera batean udalak: “Baina azkenean ados jarri gara, eta albo batera utzi dugu espedientearen bidea. Izan ere, horrelako espedienteen tramitazioa oso prozesu luzea da, eta bide horretatik joz gero, Gazteluko bizilagunek astetan jarraituko zuten gauez zarata jasaten”. Akordioa betetzen dela ziurtatzeko, udala auzotarrekin harremanetan dagoela esan zuen alkateak.

Gazteluko auzotar batzuek gatazkaren bestelako kontaktuzuna egiten dute. Euren ustez, udalak onartu behar ez zituen baldintzetan eman zituen obraren lizentziak, eta hori uste dute dela arazoaren sorburua.

Auzotarren ikuspegia

Auzokideetako batzuek kritikatu dute Abadiñoko Udalagaz kontaktua egin guran bederatzi hilabete eman dituztela, eta udalitik ezelako erantzunik ez dutela jaso, udalean hainbat aldiz euren egoera salatzeke idatziak ere aurkeztu dituzten arren. Azken hilabeteetan sufrimendu galanta bizi izan dutela diote auzotarrek: bi-hiru ordutik ez-tanden burrunbak, eta 24 ordutik makinaren eta kamioien joan-etorrien zarata sufritu dute.



Tunel bi eraikitze lanetan ari dira Gaztelua auzoan.

Ibilgailuen trafikoa handitzen duen erabakia kritikatu dute

Hamabi metrorainoko ibilgailuak igaro daitezke Urkiolatik; lehen hamar metrorainokoak soilik

IZURTZA Joseba Derteano

Bizkaiko Foru Aldundiko Errepide Sailak Urkiola mendatetik igaro daitezkeen ibilgailuen neurria handiagoa izatea baimendu du. Orain arte, gehienez hamar metrorainoko ibilgailuak bakarrik ibili zitezkeen. Orain, hamabi metrorainoko ibilgailuak baimendu dituzte.

Izurtzako eta Mañariko alkateek idatzi bat bidali dute Aldundira, neurri horregaz ados ez daudela adierazteko. Izurtzako alkate Luis Ballarinen esanetan, “atzerapauso” bat

da. “Urteak dira herrigunetik igarotzen den trafiko emaria gutxitu dadin neurriak hartzeko eskatzen ari garena, eta Aldundiaren erabaki horrek justu kontrakoa ahalbidetzen du; arazoa handitu egingo da”. Gainera, “neurriak eragina izango duen herrietako udalekin kontsultatu gabe” hartu du-

“Atzerapausoa da; urtetan eskatu dugunaren justu kontrakoa ahalbidetzen du”

te erabakia. Bidalitako idatziak jasotzen duenez, “erabakiak eragin zuzena izango du herrien bizi kalitatean, herrigunetatik igaroko diren ibilgailu kopurua handituko duelako”. Eta “are larriagoa dena: orain arte mendatean gora joatea debekatuta zuten ibilgailu pisutxuak pasatuko dira” aurrerantzean. Gainera, mendatea jaisterako orduan, aldapa handiak daudenez, “trafikoa mantsotu” egingo dela dio, eta ibilgailu pisutsuek galgatze-ko arazoak izan ditzaketela.

Harrobietako kamioiak

Trafikoari lotuta, Ballarinen berbetan, “azken aldiari Mañariko harrobietara joan-etorrian dabilen kamioien kopurua hazi egin da”. Kamioiak “gehiegizko abiaduran” ibiltzen dira, eta ez dituzte seinaleen abiadura mugak errespetatzen.

lotura duten kirolak praktikatzeke. Baina orduak aukeratzeko orduan, lehentasuna mañariarrek edukiko dute. Orduko hamar euro ordaintzen dituzte erabiltzaileek. Interesdunek 946 818 998 telefonora deitu behar dute.

Birziklapen tailerra

Bestalde, datorren barikuan, hilaren 17an, birziklapen tailerra egingo dute Ecovidrioren eskutik. Beiraren birziklapenaz arduratzen den elkarte da Ecovidrio. 17:00etatik 19:00etara bitartean haurrentzako tailerrak egingo dira pilotalekuan.

Postontziak zentralizatu, eta posta egunero banatuko dute

ATXONDO J.D.

Auzolanaren bidez, iaz 31 postontzi unitate –guztira 201– ipini zituzten Arrazola, Axpe eta Santixako baserriguneetan. Postontzi horietako giltzak banatuko dituzte, eta “urriaren 15etik aurrera erabilgarri egongo dira”, Rosa Elizburu alkateak adierazi duenez.

Postontziak zentralizatzeko abantaila bi ditu. “Postarien lana erraztuko du, banaketa prozesua azkartu egingo delako, eta, ondorioz, astean birritan beharrean, egunean-egunean banatuko dute postetxera hel-tzen den posta”. Bestetik, ordu-tegi beragaz postariak denbora luzeagoan eduki ahalko du Apatako postetxea zabalik.

Baserrien jatorrizko izenak

Azken hiletan udala postontziei dagozkien baserrietako jatorrizko izenak batzen eta aztertzen ibili da. Hori izan zen auzo batzarretan herritarren partetik jasotako eskakizunetako bat. Baserrien izenak apurka moldatzen joan direla da urtetako ahozko erabilerak ekarri duen ondorioetako bat. Horregatik, artxiboetara jo, jatorrizko izenak jaso, eta ondoren Euskaltzaindira bidali zituzten. Postontzi berrietan izen biak ipiniko dira: jatorrizkoa eta normalean erabiltzen dena.

Kultur etxeko leihoak eta ateak berrizteko obra adjudikatu dute

GARAI M.O.

Herriko kultur etxean obrak egingo dituzte urtea amaitu baino lehen. Lehenengo solairuko leihoak eta ateak aldatuko dituzte, eta obraren adjudikazioa asteon egin dute udal ordezkariak. Egitasmoaren aurrekontua 31.000 eurokoa da.

Udalak proiekturako dirulaguntza eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari, eta 27.800 euro jaso dituztela adierazi dute udal arduradunek. Beraz, posible izango da obra egitea.

Diru-laguntza eskatu zion udalak Bizkaiko Foru Aldundiari, eta 27.800 euro jaso ditu

Pilotalekuko txandak alokatzeko deialdia

Hilaren 24ra arte egin ahal dira txanden erreserbak

MAÑARIA M.O.

Herriko pilotalekua alokatzeko aukera ematen du udalak, eta interesdunek eskaerak egiteko aukera daukate orain. Izan ere, urriaren 24ra arte egin ahalko dira txanden erreserbak. Orain arte pilotalekua erabili izan dutenek ere eskaera berritu behar dute. Datozen sei hilabeteetarako balioko du eskaerak.

Herritik kanpokoek ere alokatu dezakete pilotalekua, pilotagaz

Orduak aukeratzeko lehentasuna mañariarrek edukiko dute, ordezkariak azaldu dutenez

JAR ZAITEZ MARTXAN

16 ETA 29 URTE ARTEKO
GAZTEENTZAKO PROGRAMA

ENPRESAK SORTZEA

- aholkularitza
- diru laguntzak

LAN GAITASUNEN ARLOKO
PRESTAKUNTZA - 44 ORDU

Norentzat	Lekua	Datak	Ordutegia
16 eta 29 urte arteko gazteentzat	AMOREBIETA	Urriaren 16tik 30era	09:30-13:30
	ERMUA	Urriaren 31tik azaroaren 14ra	09:30-13:30
	DURANGO	Abenduaren 1etik 16ra	16:00-20:00

IZEN-EMATEA ETA INFORMAZIOA

Ametx Erakunde Autonomoa (Amorebieta-Etxano)
T. 946 300 650 / gazteria@ametx.net

Behargintza (Durangaldea)
T. 946 232 522 / behargintza.mdurango@bizkaia.org

Fundación Izarra Fundazioa (Ermua)
T. 943 177 159 / proyectos@fundacionizarra.eu

Maspe kalea iurretarek aparkatzeko gorde dezatela eskatzen hasi dira

Udaletxean eskabideak aurkezten hasi dira; ordenantzak aldaketak izan ditzake



Maspe kaleko aparkalekuak beteta egoten dira normalean.

IURRETA Amaia Ugalde

Azaroaren hasieran hasiko dituzte Iurretan aparkalekua eta trafikoa moldatzeko lanak. Aldaketen artean, iurretarek eurentzat gordetako aparkalekuak izango dituzte; Tellituko aparkalekua eta Zubiaurreko eta Bidebarrietako plaza batzuk gordeko dituzte. Maspe kaleko bizilagun batzuek kale hori ere iurretarentzat gordetzea gura dute, eta udaletxean eskabideak aurkezten hasi dira.

Jose Luis Mazorriaga auzokidea bere estankotan hasi da informazioa zabaltzen: “Kale ondoan Paduretako aparkaleku erraldoia dute, beraz, utzi dezatela Maspe iurretarentzat”. Maspe Iurretako “kale ahaztua” dela uste du Mazorriagak: “Trafiko gehien duen kalea izango da ziurrenik, eta udaltzainak ez dira ia bertatik pasatzen”.

Iñaki Totorikaguena alkateak prozesua zabalik dagoela nabarmendu du, eta ez du baz-

tertu aurreraxeago aldaketak egongo direnik: “Martxan ipini ondoren ziurrenik aldaketak egin beharko dira; balorazioak egin beharko ditugu zer beharri-
zan sortzen diren ikusteko”.

Aparkalekuei buruzko ordenantza osoko bilkuran onartu zuten, EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin. Bilduk kontra bozkatu zuen. Koalizioaren ustez, “herri-
tarren foroetan batutako ideiak ez dira behar besteko seriotasunez hartu”.

Autoestimua eta adimen emozionalaren inguruko tailerra

MALLABIA Jone Guenetxea

Autoestimua eta adimen emozionala landu guran, tailerra antolatuko du Mallabiko Udalak Berdinsarearen laguntzagaz. Ikastaroa azaroaren 5ean hasiko da, eta lau astean, asteazkenero, eskainiko dute kultur etxean. Berdinsareako Miriam Ocio izango da tailerra gidatuko duena.

Ordutegia, 14:30etik 15:45era izango da. Loredi Salegi Gizarte Arloko arduradunak azaldu duenez, ikastaroan parte hartuko duten emakumeek eurek aukeratu dute ordutegi hori, baita tailerrean landuko den gaia ere. Nahikari emakume elkarteko kideez gainera, interesa duen beste edozein herritarrek eman dezake izena udaletxean edo kultur etxean.

Emakumeen ahalduntzea du helburu tailerrak. Salegik gaineratu duenez, aurreko ikastaroa gatazkak konpontze-
ra bideratu zuten, eta ildo horretatik, “arazoei aurre egiteko autoestimua osagai garrantzitsua da”.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI
DIAZ

EAJ



Jaiak bai, Herria ere bai

Ate joka daukagu jada gure Patxikotxu, gure *sanfausto*en atarian gagoz. Aurten be danetarik egongo da gure esku, adin guztietako bizilagunen gozamenerako, interes guztien (edo ia guztien) onurarako. Gure arbasoengandik jaso genduzan ohiturak aurten be berretsiko doguz, eta, aurreko durangarren omenez, egungoen mesedetan Zezenak Dira ospatu edota antzina-
ko dantzak dastatuko doguz. Aukeran izango doguz kontzertuak eta berbenak. Eta barrakak eta umeen jolasak. Eta adinekoen bazkaria, eta kirol zein kultur erakusketak. Danetarik durangarrok Jaiak gozatzeko. Egoera ekonomikoak gure egunerokoa zeharo aldatu dau, eta askok arazoak dituzte euren bizimodua aurrera eramateko. Jaiak ez dira hori guztia alboratzeko baliagarriak izan behar; kontrara, herri moduan alkatu eta bateratzeko erabili ahal doguz. Indarbarritzeko. Inor baztertu barik. Pertsona da helburua.

Eta pertsonak ardatz hartuta, Durangoko Udaleko Jai Batzordeak askotariko programa prestatu deusku. Batzordeko kideen meritua itzela da, esker onaren truk ordu asko emon dabezelako durangarren interesak eta asmoak asmatzen, gustukoak izan ahal diren ekitaldiak irudikatzen eta aukeratzen, eta horiek guztiak programa bakarrean uztartzen. Musu-truk. Esker-
rrak bihotzez.

Hortxe bertan doguz Jaiak, durangar guztien Jaiak. Disfrutatzeko eta ondo pasatzeko aukera dogu pare-parean. Ospatu dagiguzan *sanfausto*ak bakean eta errespetuan. Gure esku dago Jaiak eta Herria lotzea. Jaiak bai, Herria ere bai.

Argindarrean energia aurrezteko helburuagaz

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzagaz, LED argiak ipiniko dituzte sistema zaharkituaren orde

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Kaleko argiteria sistema eraginkorrago egiteko proiektua gauzatuko duen enpresa aukeratu du Zaldibarko Udalak. Udal gobernu taldeak azaldu duenez, Electricidad Eguzki enpresa izango da proiektuaren arduraduna. Proiektu horren barruan, LED sistemagatik aldatuko dute orain arteko sistema. Gobernu taldeak adierazi du, guztira, 67.000 euroko aurrekontuko lanak direla egingo

dituztenak. Bizkaiko Foru Aldundiaren 43.260 euroko diru-laguntza izango du proiektuak, hau da, inbertsioaren %60koa izango da laguntza. Gobernu taldeak oso garrantzitsutzat jo du pauso hau eman izana, “kontsumoa eta kutsadura murrizteko, zein energia aurrezteko”.

Proiektu honen aurreko fasean, Zaldibarko Udalak argi konpainiekin dauzkan kontratu guztiak eguneratu, eta 14.475 euro aurreztu dituzte.

Erretzeari uzteko taldea abiatuko dute Berrizen

Urriaren 21era arte dago tabakoa uzteko tailerrean izena emateko aukera; astean behin izango da

BERRIZ A.U.

Tabakoa uzteko teknikak ikasi gura dituenarentzat sei orduko talde terapia egingo dute udazkenean, Berrizen. AECC minbiziaren kontrako elkarteko psikologo batek bideratuko du ikastaroa, eta izena eman gura duenak udaleko Gizarte Ongizate Sailean egin dezake, urriaren 21a baino lehen.

Terapia sei astean egingo dute, ordubeteko sei saiotan. Lehen fase hori amaituta, ja-

rraipena egiteko beste bilera batzuk egingo dituzte, hilabete-
ra lehenengoa, hiru hilera hurrengoa, eta sei hilabetera eta urtebetara beste saio bi.

Antolatzaileek azaldu dute egoera berean dauden beste batzuekin elkartzeak eragin terapeutikoa daukala. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko gizarte2@berriz.org e-mailera idatzi daiteke, edo Gizarte Ongizate Saileko 946 824 5 25 telefono zenbakira deitu.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:



HELDUENTZAT
ORPOZ ORPO
Ernesto Prat
Urzaiz (2014)



UME ETA GAZTEENTZAT
AMALIA ETA AMELIA
Castillo Suarez
& Elder Eibar (2014)



MUSIKA
LES VOIX BASQUES - BERRIZ
Anne Etchegoyen
& Le Choeur Aizkoa (2014)

Durangaldean 106 lanpostu galtzeko eta 62 komertzio ixteko arriskua ikusten dute

Bilboko komertzioen ordutegia liberalizatzeko asmoak beste eskualdeetan eragingo duela uste dute



Atzo, Durangoko Pinondo Etxean egin zuten prentsaurrekoa.

DURANGALDEA **M. Onaindia** Durangaldean 106 lanpostu galtzeko eta 62 komertzio ixteko arriskua ikusten dute sindikatuek eta merkatariek. Horretaz ohartarazi zuten atzo, Durangon eginiko prentsaurrekoan. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak, Bizkaidendak eta Euskaldendak merkatarien elkarteak, eta EKA zein EKE kontsumitzaileen elkarteak egon ziren bertan. Eusko Jaurlaritzak aktibitate komertzialaren inguruko legea aldatzeko asmoa duela azaldu zuten, eta horrela Bilboko ordutegia liberalizatuko dutela. Eta hiriburuko merkataritza zabaltzeak gainerako herri eta eskualdeetan eragina edukiko duela uste dute. Prentsaurrekoan adierazi zutenenez,

Durangaldean aurreikusitako enplegu galera zenbatekoa izango den azaltzen duen txostena egin du Jaurlaritzak.

Sindikatuak, merkatariek eta kontsumitzaileek mozio bat aurkeztu dute Durangaldeko udaletan, kargudunek osoko bilkuretan eztabaidatu dezaten. Tokiko merkataritza babesteko eskaera egin diete, eta Jaurlaritzaren legea aldatzeko proposamenaren kontra egiteko ere bai.

Sindikatuak, merkatariek eta kontsumitzaileek mozioa aurkeztu dute Durangaldeko udaletan

Edadekoei zuzendutako Nagusi Aretoa inauguratu dute

ZORNOTZA **J.D.**

Foru Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako eta Zornotzako Udaleko hainbat ordezkari bertan zirela, joan zen barikuan inauguratu zuten Nagusi Aretoa. Gudari kalean kokatuta dago, autobus geltokiaren ondoan. Areto berria asteleheneetik barikura egongo da zabalik, 16:00etatik 20:00etara, eta hainbat gunetan banatuta dago: harrera-lekua, erabilera anitzeko aretoa, bulegoa, batzar gela, ziberkafea eta biltegia ditu.

Nafarroa zentroan lehenetik dagoen eskaintza osatzera dator Nagusi Aretoa. Irailean edadeko 150 lagunen artean inkestak egin zituzten, eta hor adierazitako proposamenak eta kezkak erabili dituzte Nagusi Aretoak jarraitu beharreko norabidea definitu, eta ekintzak diseinatzeko.

Aretoak eskaintzen duen espazio fisikoan askotariko ekintzak garatuko dituzte. Arlo horretako profesional baten esku egongo da aretoko jardunaren dinamizazioa, eta urrian hiru ikastaro abiatuko dituzte: biodantza ikastaroa, Durangaldeko historia ezagutzeko ikastaroa eta bidaietan erabiltzeko ingeles ikastaroa. Dagoeneko herrian garatzen diren ekintzak ere azpiegitura horretan batu gura dituzte, eta askotariko erakundeekin elkarlanean jardungo dute.

Kaleratze zuzen bi izan dira Barloworld enpresan

ZORNOTZA **J.D.**

Barloworld enpresako zuzendaritzak eta estatu osoan zehar banatutako fabriketako langileek akordioa adostu zuten joan zen astean. Akordioaren arabera, 177 beharrean 71 langile kaleratuko dituzte. Zornotzari dagokionez, hiru izan dira kaleratuak: horietako bat Zornotzako lantegiak Iruñean duen ordezkartizan zebilen, eta bere borondatez hartu du erabakia. Beste biak Zornotzako lantegikoak ziren, eta astean sinatu dute kitatze-agiria, Unai Marzana CCOO sindikatuko ordezkariaren esanetan.

Horietaz gainera, 64 urteko langile bat jubilazio prozesuan sartu dute, eta 59 urteko beste bi errelebo kontratuaren barruan.

Malagako eta Coruñaako lantegiekin batera, Zornotzako lantegiak ezezkoa eman zion proposamen orokorrari: 38 ezezko boto eta 20 baiezk. Bozketak orokorra errespetatzen dute beharginek, baina Zornotzako lantegiko arduradunei hiru kaleratzeak eragozteko proposamena aurkeztu zieten: langile bat beste sail batean birkokatzea proposatu zuten, eta beste soldata biak amortizatzearen denen artean ordu estrak egitea. Zornotzako kudeatzaileek zuzendaritza orokorrera bidali zuten proposamena, baina ez zieten onartu.

> DURANGALDEA ASTEON

Nagusientzako parkea zelan erabili

DURANGALDEA Nagusientzako parkeetan gimnasia egiteko dauden tresnak zelan erabili ikasteko doako tailerrak antolatu ditu Amankomunazgoak. Elorrioren (urriaren 14, 15 eta 16an) eta Zaldibarren (urriaren 28, 29 eta 30ean) izango dira. Eskola bat teorikoa da, eta beste biak praktikoak izango dira. Izen-ematea: 946 200 546.

Tunelean horma eta zoru berriak

IURRETA Astelehenean Maspe eta Bixente Kapanaga kaleen artean dagoen tuneleko lanak hasi zituzten. Berriztatze lanek bi hil iraungo dute. Zorua aldatu, eta horma berriak ipiniko dituzte. Masperako sarbidea ere hobetuko dute. Egunero hainbat iurretaren pasatzen dira tuneletik, anbulatzaileak eta jubilatuen egoitzara joateko.

Iurretako jaietako zenbaki irabazlea

IURRETA Iurretako San Migel Jaietako zozketaren lehen saria 0513 zenbakiak jaso du, eta bigarrena 2.908 zenbakiak. Zenbaki irabazleak astebeterako bidai irabazi du Kanaria uhartera; bigarren zenbakiaren jabeak, osterak, asteburu-pasa bat (hiru egun eta bi gau) irabazi du.

San Martin-Olazar ingurunearen utzikeria

Zaldibar herrigunea “berritze” prozesu batean dagoen bitartean, auzo batzuk gero eta okerrago daude, San Martin eta Olazar inguruak kasu. Inguru honetan beti dago “zer edo zer” (pilota, zirkua eta barrakak, adibidez), eta mundu guztiak aparkatzen du kotxea edozein tokitan, baita portalen aurrean ere. Ez dago inongo erregulaziorik.

Argiteriari dagokionez, gaztetxetik Euskal Herria etorbideraino hainbat argi ez dabilta azken hilabeteetan, eta hainbat estolda solte daude.

Unai García Vara (Zaldibar)



Iritzia



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefona • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz**Alberto Santana** | Historialaria | Deusto, 1960

“Zaldibar familia aldatzen zihoan heinean, etxea bera ere aldatzen joan zen”

Historia handiko etxea da zaldibartarrena; Europako Ondarearen Jardunaldietako protagonista izango da zapatuan, Zaldibarren

> **BERBAZ** Jone Guenetxea

Gaur egun eraitsita dagoen Zaldibar familiaren etxea Durangaldeko eraikin esanguratsuenetako bat da. Bertan bizitako Zaldibar familiak ere zeresan handia eman du Durangaldeko historian. Erdi Aroan gerlari bortitzak izatetik Errege-Erregina Katolikoen sasoian funtzionario izatera pasa ziren. Ondoren, maizter aberatsak izan ziren. Belaunaldi bakoitzean eraikinak izandako eraldaketei buruz jardungo dute Alberto Santanak eta Dolores del Montek, bihar, 18:30ean, liburutegi zaharrean.

Nortzuk izan ziren zaldibartarrak?

Durangoko lurretan bizi zen familia noble bat izan zen, Erdi Aroren bukaerako klan edo leinu ezagun bat. Krudelak eta bortitzak ziren familia horretakoak, eta lurralde zabalak kontrolatzea lortu zuten. Iurretako, Mallabia, Zaldibar eta Ermua zaldibartarren jabetzakoak ziren.

Zaldibar sendiaren etxea beraiek eraiki zuten?

Hainbat belaunalditan eraikin hori eraiki, suntsitu, berreraiki eta eraberritu egin zuten. Familia eraldatzen zihoan, eta familiagaz batera etxea bera ere bai.

Erdi Aroan dorretxea izan zen, baina Zaldibar familiako kideek beraiek erre egin zuten. Zer dela-eta?

1449an gertatu zen. Sendi horretako kideek Durangoko lurretan nahaste itzela sortu zuten. 1447an Gerediagako Batzarretan zaldibartarrek ezpatak atera zituzten, eta bertan Durangoko bost batzarkide hil zituzten. Zauritu piloa utzi zuten. Hurrengo urtean guda piztu zen. Ezinezkoa zen Ibaizabal zeharkatzea batzuek edo besteek erasotua izan barik. Fernando Pérez de Zaldibar Durangoko harresiaren inguruan zebilen, eta punteria ona zuen baten batek gezia sartu zion izterrean, babestu gabe zuen lekutik. Egun batzuetara hil egin zen. Patriarka hilda, Durangokoek sarmientotarrei dei egin zieten. Arabako eta Burgosko iparraldetik gerlari mordoa etorri ziren, zaldibartarren ahultasun momentua baliatuta. Etxean gelditu ziren Zaldibar leinukoak konturatu zirenean patriarka barik ezingo zutela euren burua babestu, 1449ko maiatzean etxea erre egin zuten, eta Ermura ihes egin zuten.

Nork berreraiki zuen gero eraikina?

Pedro Ruiz de Zaldibar ilobak berreraiki zuen. Tarteko belaunaldia ere oso xelebrea izan zen. Errege-Erregina Katolikoek aurreko belaunaldietako bortizkeria barkatzeko-edo, Fernando eta Juan de Zaldibar Granadako gerrara joan ziren. Malagako genozidioan granadarrek biak hil zituzten. Fernandoren semeak, artean ume bat zela, Errege-Erregina Katolikoen aldetik hainbat kargu jaso zituen, eta erregearen funtzionario bihurtu zen. Besteak beste, Ermuko probestu kargua, eta Iurretako eta Mallabiko patrono kargua hartu zituen. Horrela, Zaldibar familiaren etxea jauregi bihurtu zuen berriro.

Hurrengo belaunaldiak etxea errentan jarri zuen.

Ana Mari de Zaldibar aristokrata zen, eta Bizkaiko ahaldu nagusiagaz ezkondu zen. Ugartetarren dorretxera joan zen bizitzera bere gizonagaz. Gero eta denbora gutxiago pasatzen zuen jauregian, eta hondatzen hasi zen. Sasoi hartan Markinan zegoen arkitekto onenari enkargatu zion jauregiaren obra, eta etxe berri bat eraiki zuen. Eraikin hau da 1960ko hamarkadara arte ezagutu dugun etxea.

“Durangaldeko lurretan nahaste itzela sortu zuten zaldibartarrek”

Zer gertatu da eraikina gaur egun dagoen egoeran egoteko?

XX. mendean, 36ko gerraren ondoren, Durangaldeko etxe ederrenetarikoa izan zen. Gerraren ostean, korta ingurua sendotzen saiatu ziren, baina 1961eko maiatzaren 4an erori egin zen. Horma batzuk indartzen saiatu ziren, baina arrisku egoeran zegoen, eta udalak eraistea erabaki zuen.

Durangaldeko hainbat eraikin aztertu dituzu. Zerk lotzen zaitu lur honetara?

Askok maite dudan lurra da. Jende asko ezagutzen dut bertan. Bere paisaiek eta



Santana, Gerediagako juntetxean behinola bizkaitarren jantziekin hitzaldia ematen. Txelu Angoitia.

mendiek lotzen naute bertara, eta txikitatik oso gustura sentitu naiz bertan. Gaztetatik eskalatu ditudan mendiak daude.

Bestetik, Donostiako Zinemaldian dokumental bat aurkeztu duzu. Zein da landu duzun gai?

Euskal Herriaren historiari buruzko lan multzo baten laugarren kapitulua da. Aurrekoak ez daude eginda, baina laugarrenagaz hasi gara. Euskararen sorreraren inguruan aztertzen gabilzan hipotesi baten ingurukoa da. Hipotesi horren arabera, euskara ez da mendebaldeko Euskal Herriko hizkuntza historikoa, hau da, gaur egungo Bizkaikoa, Gipuzkoakoa eta Arabakoa. Erromatarren aurreko hizkuntza propioa hizkuntza europar-zelta bat litzateke. Hizkuntza horrek azalduko luke lur horretako totem zentral bat: *Anboto*. *Anboto* euskaratik aztertuz gero, ulertezina da. Presentzia hori duen mendi batek izen historiko bat izan behar du, hizkuntzaren baten ulergarria izango zena. *Anboto* Kantauri kostaldeko umeen izen indigena ohikoena da Erromatar Inperioaren sasoian. Beraz, orain 2.000 urte ume bat bazenuen, *Anboto* zen ohiko izena neska bazen, eta *Anbotus* mutila bazen. Zalantza barik, gaur egun, euskara Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako

hizkuntza propioa da, baina uste dugu lurralde honetan berandu sartu zela. Antza denez, VI. mendean, erromatarrek eta bisigodoak lur hauetan egon ostean, Arabatik heldu zen euskara. Beraz, Kanpazarko eta Urkiolako pasabideetatik iritsi zen.

“Euskararen jatorriari buruzko hipotesi bat lantzen gabilta”

Dokumentalak zelako harrera izan du?

Viktoria Eugenia bete zuten 500 lagunek baino ez zuten ikusi, eta asko ezagunak ziren, beraz, Donostiako Zinemaldian harrera ona izan duela esan daiteke. Egia da kritika batzuk jaso dituela, baina ikusi ez duen jendearen aldetik, hau da, sinopsia bakarrik irakurri duten batzuen aldetik. Guk partekatzen ez ditugun teoria espainiar zaharkituekin lotzen dute teoria hau, baina filma ikusi izan balute, iritzi ezberdina izango lukete.

Jorge Lian García Díaz | Kamankola taldeko abeslaria | Habana (Kuba), 1984**> MUSIKA** Itsaso Esteban**Zelan sortu da Durangon ari-
tzeko aukera?**

Magikoa izan da: Kuban lan egi-
ten duen nire bikotekidearen
lagun euskaldun baten bitartez
sortu diren hartu-emanek ekarri
gaituzte hona. Dena izan da pau-
soz pausoko inprobisazioa, eta,
azkenean, hemen nago, behin
amestu nuen hori bizitzen.

**Bederatzi musikarik eta dan-
tzari batek lagunduta ariko za-
ra Durangoko kontzertuan.**

Musikari itzelekin elkartu naiz
kontzertu honetarako: Duran-
goko musika eskolako Lerman
Nieves irakaslea ariko da taldea
zuzentzen, eta oso maila altuko
jazz musikariek lagunduko di-
date. Dena emango dugu. Ikusi
dut itzelezko agertokian ariko
garela, eta ilusio handia egiten
dit. Durangokoaren ostean, Ma-
drilen eta Zaragozan joko dut.

**‘Antes que lo prohíban’ diskoa
aurkeztuko duzu. Zelakoa da?**

“Norbaitek debekatu orduko,
egidazu amodioa” dioen izen
bereko kantatik hartutakoa
da diskoaren izenburua. Asko
landutako kantak dira, eta nire
estilo nahasketa jasotzen du dis-
koak. Bizia ematen dut kante-
k zentzua izan dezaten, ez daite-
zen arruntak izan. Hitz bakoitza
nire maitasun guztiagaz sortua
dago. Inoiz hilabeteak eman
izan ditut kanta bati falta zaion
berba aproposa bilatzen.

**Rap musikatik bestelako esti-
loetarako bidea egin duzu.**

Bai, nire sorkuntzan beti dago
rapa. Baina baita bestelako melo-
diak ere. Sortzen hasi, eta edonon
amaitu dezaket. Zoro bat naiz
horretan, eta musikari lagunak

“Bizia ematen dut kante- k zentzua izan dezaten, ez daitezen arruntak izan”

Jorge Lian García Diazek Durangoko Ezkurdi plazan joko du, urriaren 17an, bederatzi musikarik lagunduta



harritu egiten ditut sarritan: tin-
ba batetik rap batera salto egitea
proposatzen diet, esaterako. Oso
gustuko dut hori.

**Entzun ere denetariko musika
entzuten duzu?**

Bai, noski, oso inportantea da
hori. Edozelan ere, batez ere tro-

“
*Musikari
ikaragarri onek
lagunduko didate
Durangon*”

badoreen sorkuntza entzuten
dut, euren letrak oso gustuko eta
elikagai ditudalako.

**Finantzaketa kolektiboaren bi-
dez bildu duzu diskorako dirua.**
Bai, eta lehenengo kubatarra
izan naiz Kuban bertan finan-
tzaketa kolektiboa oinarri duen
kanpaina bat erabili duena. Ez
da erraza izan, baina mila kopia
ateratzeko dirua lortu dugu. Guz-
tiz disko independentea da, eta
kalitate handikoa. Edozelan ere,
pozik handiena da ikustea egiten
dudanagaz identifikatzen diren
entzuleak badaudela.

**Kritika sozialaz gainera, kanta
intimistak ere lantzen dituzu.**

Bai, noski. Edozelan ere, zehaz-
tu nahi nuke ez dudala Kuba ba-
karrik kritikatzeko. Kritikatzeko
dut, esaterako, kubatarrok han-
dik alde egiteko dugu grina.
La ponina izeneko kanta horri
buruzkoa da: Kuban egon behar
dugu gauzak aldatzeko. Badakit
eredu guztiek dauzkatela gauza
on eta txarrak –kapitalismoa
basakeria itzela iruditzen zait,
esaterako–, eta Kuban ere alda-

keta batzuk egin behar dira. Ez
naiz ez iraultzaren, ez Fidenten
kontrakoa. Nire barruan sortu-
tako kantak eskaintzen ditut, ez
besterik. Sentitzen dudana eta
bizi dudana adierazteko beha-
rra daukat. Baina ez dut herria-
ren ahotsa izan nahi, ezta ezere-
n liderra ere.

**Beste artista batzuen bano
zuzenagoa da zure mezua?**

Ez pentsa, nik ere oso gogoko dut
metaforetan hegaz ibiltzea. Ni
baino askoz esplizituagoak dira
beste batzuk. Gertatzen dena da
ez dutela aukerarik egiten dute-
na ezagutarazteko.

**Kuban kalitate handiko musika
hezuntza dagoela entzun du-
gu maiz. Horrela da?**

Nire kasuan ez da horrela izan,
20-22 urtetik aurrera ez daukazu-
lako eskoletan sartzeko aukera-
rik. Ni beranduago hasi naiz, eta
ez dut musika ikasketarik. Oso
gaztetatik ezagutu ditudan mu-
sikariak izan dira nire eskola, eta
nire bizitzako zortetik handiena.
Taldea ikaragarri onekin kantatu
izan dut oso gaztea nintzenetik.

Zailtasunen gaineratik, nahi zuen diskoa kaleratu du: ‘Antes que lo prohíban’

Kuban sona handikoa den Egrem estudioetan grabatu du lehenengo diskoa

Habanako El Cerro auzoko ka-
leetan hasi zen 1999 inguruan
Jorge Lian García rapa kanta-
tzen. “Rap klasikoa egiten nuen
hasieran, trovaren munduan
sartu nintzen gero, eta beste es-
tilo batzuen influentzia ere jaso
dut”, dio musikariak. 2010ean
hainbat musikariarekin abiatu-
riko proiektua da Kamankola,
eta Egrem estudioetan grabatu
dute *Antes que lo prohíban* lehe-
nengo diskoa. Urriaren 17an
aurkeztuko dute Durangon.

Kubako bizitzari buruz kan-
tatzen du Jorge *Kamankolak*.
Turismoari buruzko kanta bat
dauka, esaterako: “15 urteko
neskekin ibiltzen diren 70 urte-
ko turista asko ikusten da gure
herrian. Min handia ematen
dit neskaren beharrezana zelan
aprobetxatzen duten ikusteak”.
Turista horiek Kuban uzten
duten diruaren truke askok
begiak ixten dituztela uste du.
Behin Habana Zaharreko lokal
batean kanta hori jo zueneko

gogoratu du: “Bakoitza neska-
tila bat alboan zuela, kantan
deskribatzen ditudan horie-
tako lau gizon nituen parean.
Kantatu nuen, baina amaitzean
lokaletik bota ninduten”.

Kubako Gobernuak ematen
duen lizentzia jasotzeko, *Antes
que lo prohíban* diskoko bi kan-
ta kanpoan uzteko baldintza
ipini zioten. Ez zuen onartu. Az-
kenean, diskoa kanta guztiekin
kaleratzea lortu du, finantzazio
kolektiboari esker.

Domekako saioagaz hasiko dute Bizkaiko bertsolariek txapelketa

Durangaldeko hiru bertsolarik kantatuko dute Galdakaoko domekako saioan

> BERTSOLARITZA I. Esteban Galdakaon (Bizkaia) jokatu dute domekan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa. Urriaren 12an, 17:30ean hasiko dute saioa, Galdakaoko Torrezabal kultur etxean.

Txapelketako lehenengo saioan oholtzara igoko diren sei bertsolarien artean Durangaldeko Aitor Bizkarra Ruiz abadiñarra, Beñat Ugartetxea Ostolaza mallabitarra eta Garikoitz Sarriugarte Onaindia zaldibartarra egongo dira. Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendiak, Iñaki Iturriotz Zuluagak eta Julen Erezuma Arzanegik osatuko dute saio horretako seikotea. Maite Berriozabal berriztarak

emandako gaien inguruan ibiliko dira kantuan.

Aitor Bizkarra, Beñat Ugartetxea eta Garikoitz Sarriugarte kantatuko dute domekako saioan

Udaberrian eskualdekako txapelketak jokatu ostean, 30 bertsolarik hasiko dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketa fasea. Finalaurreko saioetan 2012ko txapelketako zazpi finalista batuko zaizkie bertsolari horiei.

Abenduaren 20an, Bilboko Bilbao Arenan jokatu dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala, baina horren aurretik bost kanporaketez eta hiru finalaurrekoiez gozatzeko aukera izango dute bertsozaleek. Kanporaketetako bat Mallabian izango da, azaroaren 2an, eta Zornotzako pilotalekuan jokatuko dute, abenduaren 7an, finalaurreko azkenengo saioa.

Durangaldeko bertsolariek parte hartuko duten saioetako kronikak ANBOTOn irakurgai

Durangaldeko bertsolariek parte hartuko duten saioetako kronikak irakurgai izango dituzue ANBOTOn. Izan ere, Amaia Ugalde kazetariak Durangaldeko bertsolariek parte hartzen duten saioen berri emango du kroniken bitartez.

KANPORAKETAK

• **Urriaren 12an**, Galdakaoko Torrezabal kultur etxean.

• **Urriaren 19an**, Gauegiz Arteagako pilotalekuan.

• **Urriaren 25ean**, Mungiako Olalde aretoan.

• **Azaroaren 2an**, Mallabiko pilotalekuan.

• **Azaroaren 9an**, Zeanuriko Ibarreta pilotalekuan.

GEURE DURANGALDEA

MIKEL ONANDIA

Arte historialaria



Eta filosofia, zer?

Arteaz idatzi ohi dut zutabe honetan, hori baitut afizio eta ikerketa gai nagusi. Baina batxilergoko filosofia irakasle gisa irabazten dut eguneroko ogia, eta diziplina horrek bizi duen gainbeheraz aritzeari garrantzitsua deritzot.

Oro har, filosofiaren gutxiespena bi kausatik gertatzen da: batetik, aldaketa sozial eta bizi-erritmo bizkorak direla-eta, beharrezkoagoa dirudi, errealitatea ulertu eta bertan orientatzeko, jakinduria sakona garatzea baino, komunikabideak edo sare sozialak kontsultatzea; bestetik, sarri ezagutza positiboak –zientzia eta teknika– erabat balioesten dira, beste guztiaren gainetik.

Hain justu bi ezaugarri erredukzionista horiek nagusi direnez, inoiz baino gehiago behar ditugu jakintza filosofikoa eta horri dagozkion lanak bermatzea: hausnarketa patxadatsu eta argudiatua sustatzeko; lortu gura ditugun helburuak erarrazionalen argitzeko; dogma eta aurreiritziei aurre egiteko asmoz, irizpide funtsatuak eskuratzeko; beste jakintza partikularrek eskaintzen ez duten ikuskera bateratzailea lortzeko koherentzia eta sistematizazioa bilatzeko. Funtsean, hezkuntza sisteman filosofia irakastearen helburua egun hain ezohikoa den pentsamendu kritikoa –filosofia praxi eta jarrera gisa– bultzatzea eta bideratzea da.

Arrazoiz ari dira asko LOMCE legeak euskarari eragingo dizkion kalteak salatzen, baina gutxi dira humanitateak eta, batez ere, filosofia desagerraraztera datorrela azpimarratzen dutenak. Dena den, neurri batean ulertzekoa da, orokorrean, tamalez filosofia gizartean bizi duen entzute urria dela-eta.

Batukada feministara batzeko deia egin dute

Durangoko taldera batzeko gonbita emakumeei



> MUSIKA

Durangoko Andraguneak antolatzen dituen Emakumeen Jabekuntza Eskolako ikastaro batean eratu zuten Durangoko batukada feminista. Eta deialdia zabaldu dute bertako partaideek, ikasturte honetan taldearen egitasmoa indartzeko.

Emakumeen Jabekuntza Eskolako ikastaro batean eratu zuten Durangoko batukada feminista

Perkusioaren bitartez emakumeen arteko sare bat sortu, eta ikuspegi feminista lantzea da taldearen helburua. Batukadagaz bat egin gura duten emakumeek durangkobatukadafeminista@gmail.com e-mailaren bidez eman dezakete izena.

Baroja Collet artistaren artelanak, Durangon

Joan zen barikutik dago bilduma Museoan ikusgai

> ERAKUSKETA

Juan Luis Baroja Collet (Le Creusot, Frantzia, 1957) artistak eginiko eskulturen bilduma ikusgai dago joan zen barikutik Durangoko Arte eta Historia Museoan. *Gure alfonbraren zulo* da erakusketaren izena, eta brontzeagaz eta altzairu herdoilgaitzagaz egindako eskulturak eta collage teknikagaz

egindako lanak biltzen ditu. Eibarren bizi den eta Debako Arte Eskolan grabaketa kalkografi-koko irakasle den artistak 2011. eta 2014. urteen artean egindako artelanak dira bildumakoak.

Joan zen barikuan inauguratu zuten *Gure alfonbraren zulo* erakusketa, eta azaroaren 2ra arte egongo da Durangoko Arte eta Historia Museoan.



Brontzez eta altzairuz egindako eskulturak daude, besteak beste, erakusketan.

San Agustinalde, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

Una comedia de Fernando J. López
Pentación Producciones
De mutuo desacuerdo

Urriaren 12an - 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEAK

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

URRIAK 19 18:00etan DOAN AIKO ERROMERIA	URRIAK 24 22:00etan THE FULL MONTY ANTZERKIA	URRIAK 27 17:00 / 19:00 OLGETAN HAURRENTZAKO EKINTZAK
--	--	---

EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK LARUNBATERA

Landako eterbidea, 4 A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

EDERTASUN GIDA



Nerea Sarriugarte.

Elikatzen ikasiz

Nerea Sarriugartek dietetikagaz eta nutrizioagaz lotutako zerbitzua zabaldu berri du Durangon, Hiru fisioterapia zentroan.

Zer eskainikon diozu pazienteari?

Lehenengo, gorputz konposizioaren azterketa egingo dugu: gantz, gihar, hezur eta ur kantitateak neurtuko ditugu. Horretarako, teknika bi erabili ahal ditugu.

Bioinpedantziagaz, gorputza zatika aztertuko dugu, inpedantzia bioelektrikoen bidez. ISAk azterketa antropometrikoagaz, gorputzeko tolesdurak, perimetroa eta diametroak neurtuko ditugu, konposizio zehatzago bat emateko.

Gero, elikadura plana zehazten da.

Gorputza aztertu ostean, pazientearen historia dietetiko eta klinikoa jorratzen da. Bere helburuak ezagutu, eta elikadura plan pertsonalizatua zehazten da. Planak haurrentzat, haurdun daudenentzat, familia osoentzat eta kirolarientzat egiten ditugu, eta baita gaixotasun batzuen prebentziorako ere. Dieta elikagai arruntetan oinarrituta dago, eta denetarik jaten da.

Zelan lortu daiteke arrakasta?

Ondo elikatu, bakoitzak bere neurrian ariketa fisikoa egin... Prozesuan lortutako elikadura eta bizitza ohiturak denbora luzez mantentzeak arrakasta ziurtatuko du.



ILE APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



DIETETIKA eta NUTRIZIOA



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Japoniako kultura kaleetara zabalduko du Mangamore jaialdiak, gaurtik domekara

Manga, animea eta Japoniako kulturaren bestelako osagaiak izango dira asteburuan gozagai, Zornotzan

> JAIALDIA Itsaso Esteban Tailerrak, lehiaketak, musika emanaldiak, umeentzako ekintzak, berbaldiak eta bideo jokoak jaso dituzte martxotik

jorratzen aritu diren Mangamore ekimenaren programan. Japoniako kultura tradizionalaren erakusle, kimonoa janzten ikasteko tailerrak, eta *kendo* eta

ninjutsu borroka arteen erakustaldiak egongo dira, esaterako.

Gainera, Mangamore jaialdian oinarritzkoak diren manga (Japoniako komiki mota) eta

anime (marrazki bizidun mota) sorkuntzak, *cosplay* subkulturren erakustaldiak eta karaokea ere ez dira faltako urriaren 10etik 12ra. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, jaialdiaren lehenengo edizioetan oinarri hartu zituzten gazteei zuzenduriko ekintzetatik harago zabaldu dute jaialdia aurtan. Adin guztietako herritarrei zuzendutako eskaintza prestatu dutela adierazi dute.

Zelaieta parkean ipiniko duten karpan Japoniako askotariko produktuak probatu ahalko dira

Orain arteko edizioetan Zelaieta zentroa izan da Mangamore jaialdiaren gune nagusia, baina aurtan Zornotzako kaleetara zabalduko dituzte erakustaldiak. Zelaieta parkean karpa gastronomiko bat ipiniko dute,

eta pilotalekuan eta karpa horretan muntatuko dituzte emanaldietarako agertokiak.

Gastronomiari dagokionez, mota guztietako Japoniako produktuak dastatzeko aukera egongo da, eta baita dastaketan eta tailer gastronomikoetan parte hartzeko aukera ere.

Musika emanaldiak ere izango dira Mangamore jaialdian gozagai. David Murillo udaleko Gazteria Arloko arduradunak azpimarratu duenez, herrialde horretan oso ezaguna den Yuimino+ Japoniako taldea eta bideo jokoetan entzuten diren abestien bertsioak egiten dituen Attack On Games taldeak etorriko dira, besteak beste, Zornotzan jotzera. Gainera, herriko musikariek osatzen duten Eromen taldeak eta Zaparrada batukada taldeak emanaldiak eskainiko dituzte Mangamore jaialdiaren harira.

Urterik urte zornotzarrek jaialdian parte-hartze handiagoa dutela azpimarratu dute antolatzaileek. Andoni Agirrebeitia zinegotziak aurkezpenean azpimarratu duenez, “gero eta sustraituago dago jaialdia Zornotzan; herri kulturaren parte izango da, eta herriko eragileek parte hartuko ez balute, ez litza-teke posible izango hain programa zabala osatzea”.



Kalerik kale ibiliko da Urashi, Mangamore jaialdiko maskota, gaur hasi eta domekara bitartean.

> ARTE ERAKUSKETA

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen arte plastikoen Ertibil erakusketa ibiltaria Elorrioren izango da datozen asteetan. Bilboko Rekalde aretoan erakutsi zuten lehenengoz, eta Leioan, Gernika-Lumon, Barakaldon eta Lekeition ere izan da ikusgai, Elorrioren baino lehen. Elorrioren, urriaren 14tik 26ra arte egongo da erakusketa, eta Basaurira, Gasteizera eta Sestaora eramango dute, ondoren.

Lehiaketara sorkuntzak aurkeztu dituzten hamalau artistaren lanak daude erakusketan

Lehiaketan parte hartu duten hamalau artistaren lanen bilduma da erakusketa honetakoa: epaimahaiak irabazle hautatu dituen hiru artisten sorkuntzak, eta epaimahaikideek partaiden lanetatik aukeratu dituzten beste hainbat obra ere badaude ikusgai. Artista gazteen eskulturak, margolanak eta argazkiak daude erakusketan.

Aurtan, 141 obra jaso dituzte Ertibil lehiaketan: 35 urtetik beherako 104 artistak sorturi-

Ertibil lehiaketako lanen erakusketa Elorrioko Iturri kultur etxean izango da, urriaren 26ra arte

Erakusketa ezagutzen laguntzeko bisita gidatua eskainiko du Ismael Manterola irakasleak, urriaren 23an

koak. María Azcona (Iruñea, 1991), Kristina Losa (Gasteiz, 1988) eta Oihana Torre (Bilbo, 1981) artistak izan dira Ertibil lehiaketaren 2014. urteko edizio-ko saridun nagusiak.

Everest mendia irudikatzen duen *8848 metro* izeneko margolanagaz Azcona nafarrak jaso du lehenengo saria; Kristina Losaren *Concrete* margolanak jaso du bigarrena; eta Oihana Torreraren *49 kubo* argazkiari eman diote hirugarren saria.

Manterolak gidaturiko bisita Elorrioko Udalaren eskutik, Ertibil erakusketa ikusteko doako bisita gidatua eskainiko du Ismael Manterola EHuko irakasleak, urriaren 23an, 19:30etik aurrera, Iturri kultur etxean. Euskal Herriko arte sorkuntza garaikidea ezagutzeko eta ulertzeko aukera izango da Ismael Manterolak Elorrioko Iturri kultur etxean eskainiko duena. Izan ere, 1983. urteko lehenengo ediziotik, sortzaile bizkaitar gazteen lana bultzatzea, sustatzea eta ezagutzera ematea izan da Ertibil lehiaketaren helburua.




Artista gazteen eskulturak, margolanak eta argazkiak daude erakusketan.

 Kirola**Sasa Borovnjac** (Serbia, 1989) | **Tre Bowman** (AEB, 1991) | **Juan Coronado** (Venezuela, 1990) |

“Gure asmoak igoerara bideraturik daude; liga irabazteko moduko taldea dugu”

Hirurek lehen denboraldia dute Zornotzan; talde lanaren mezua ondo barneraturik dute, eta itxaropentsu daude aurretik duten erronkarako; gogor lan eginez gero, edozein helburu lortu dezaketela uste dute



Ezkerretik eskumara: Sasa Borovnjac, Tre Bowman eta Juan Coronado. Lehior Elorriaga

➤ SASKIBALOIA J. Derteano

Sasa Borovnjac, Juan Coronado eta Tre Bowman jokariarik Zornotza Saskibaloia Taldearen aurtengo hiru fitxaketa dira. Hirurek Estatu Batuetako unibertsitateen NCAA ligako lehen mailan jokatu izan dute. Bowman eta Coronado hortik datoz. Borovnjacek ibilbide luzeagoa du, eta iaz ACBko Herbalife Gran Canaria taldean jokatu zuen. Aurten euren bideak Zornotzan elkartu dira.

Zornotza Saskibaloia Taldearen proiektutik zerk erakarri zaituzte?

Tre Bowman: Nire ibilbidea hasteko toki aproposa dela uste dut; jokalaria gisa hazteko aukera eskaintzen dit.

Sasa Borovnjac: Nork bere ibilbidea hasteko aukera oso ona da; gogor lan egin gura dugu, taldeari lagundu nahi diogu, hurrengo denboraldian goragoko maila batean egoteko.

Juan Coronado: Aurretik dudak aukera honegaz emozionala nago. Zornotzak bigarren denboraldia egingo du Zilarrezko Adecco ligan, eta gorantz doan taldea da.

Zornotza Saskibaloia Taldean zaudetenetik zerk eman dizue atentzia?

T.B.: Egunean eguneko lanean jartzen duten arretak. Zuzendaritzatik hasi eta entrenatzaile talderaino, gogor lan egitearen aldeko konpromisoa azpimarratzen dute. Gure ahalmenen mugan jartzen gaituzte beti.

Liga hasi baino ez da egin. Zer unetan dago taldea?

T.B.: Taldekideen artean gero eta hobeto ulertzen dugu elkar, eta apurka-apurka hazten ari gara. **S.B.:** Oraindik ez gaude nahiko genukeen tokian, oraindik ez daramagulako denbora askorik elkarrekin, baina partiduz partidu hobetzen ari garela eta elkarrengandik gero eta gertuago gaudela ikusten dut. Bide horretatik jarraitu behar dugu.

J.C.: Talentua duen talde handia dugu, baina denbora behar dugu hobetzeko. Mikel [Garitaonandia, entrenatzailea] lan handia egiten ari da gure defentsako hutsuneak aurkitzen eta zuzentzen.

Zornotzaren iazko denboraldia gogoangarria izan zen, eta zaleek igoeragaz amets egin zu-

ten. Aurten zer helburu duzue?

T.B.: Gogor lan egin eta bakoitzak duen guztia ematen badu, taldeak edozer helburu lortu dezake.

S.B.: Nire onena eman nahi dut, taldeari bere helburua lortzen laguntzeko; Urrezko Adecco ligara igotzea lortu nahi dut.

J.C.: Gure asmoak igoerara bideratuta daude. Badakigu liga irabazteko moduko taldea dugula. Horrek gure onena ematen lagunduko digu, eta taldearentzat mesedegarria izango da.

“**Taldekideen artean gero eta hobeto ulertzen dugu elkar**”

Zaleen artean ilusioa eragin du aurtengo taldeak. Igoera lortzeko behar hori igartzen duzue?

T.B.: Ez dut uste behartuta gaudenik. Daukagun guztia emateko eta taldeari laguntzeko etorri

gara; hori da garrantzitsuena. Hortik aurrera ikusiko dugu zer gertatzen den.

J.C.: Igoera lortu ezik, ez nintzateke desengainaturik sentituko, baina badakit igoera dela gure helburua, eta, talde itzela dugunez, helburu horretatik gertu egon gaitezkeela. Talde osoak hori buruan duela lan egingo du.

Zer moduz moldatzen zarete entrenatzailegatz?

S.B.: Oso entrenatzaile ona dela uste dut. Entrenamenduetan jartzen duen intentsitatea gustatzen zait. Taldean denbora asko daramatenak zein gutxi daramatenak, denak tratatzen ditu berdin. **J.C.:** Hain gaztea izanda, saskibaloia buruz duen jakintza miresten dut. Jokalari bakoitzak duen talentua taldearen mesedetan aprobetxatzeko abilezia du.

Zelakoa da zuen bizimodua Zornotzan? Zuen herrialdeagaz alderatuta, zer alde du?

T.B.: Bizimodu desberdina da, seguru, baina guztira moldatzen saiatzen naiz. Niri batez ere hizkuntza egiten zait gogorren, taldekideekin komunikatzeko tresna beharrezkoa delako, eta

gaztelania hobetzen ari naiz apurka. Gastronomian alde handia dago. Hemengo janaria asko gustatzen zait, zoragarria da. Dena dela, Estatu Batuetako janariagaz geratzen naiz [barrez].

S.B.: Europarra naiz, eta eza gutzen dut hemengo bizimodua. Belgradon [bere jaiolekua] milioi eta erdi lagun bizi dira, eta, horregaz alderatuz gero, Zornotza herri txiki bat da bere berezitasun guztiekin. Asko gustatzen zait. Hori bai, iaz Kanaria uharteetan egon nintzen, eta hemen euri gehiago egiten duela konturatu naiz [barrez]. Oraingoz ez dugu asti handirik izan turismoa egiteko. Behin Bilbo bisitatu genuen, baina momentuz hori bakarrik.

J.C.: Nire herrialdeagaz ez dut alde handirik sumatu. Uste dut ondo moldatu naizela hemengo bizimodura.

Saskibaloian jokatzeko era oso desberdina da AEBetan eta Europan. Aldaketa handia sumatu duzue?

J.C.: Jokatzeko era asko aldatzen da, ikaragarri. Kostatzen ari zait moldatzea. Askotan aipatzen den irteerako urratsak zuzentzea gaitz egiten zait.

T.B.: Jokatzeko era eta arauak desberdinak dira, hori horrela da, baina ez dut uste nire jokatzeko moduan inpaktu handirik eragiten duenik. Lortu behar dudana da nire jokatzeko modua hemengo arau eta eskakizunetara moldatzea. Hemengo saskibaloia taktikoagoa da, eta fisikoki gehiago eskatzen du. Baloirik ez dugunean igartzen dut eskakizun fisikoa handiagoa dela: arerioari gorputzagaz eutsi, hutsuneak bete...

Euskara ikasten ahaleginduko zarete?

T.B.: Hizkuntza zaila iruditzen zait. Momentuz gaztelaniagaz konformatuko naiz.

S.B.: Dena dela, Zornotzako musika talde batek [Zirkinik Bez] taldeari eskainitako abesti bat sortu du, eta guk koruak euskaraz abestu ditugu. Abestia zaleek eskaintzen duten sostengua eskertzeko modua da.

Zaleei zer mezu eman gura diezue?

J.C.: Etorri daitezela partiduetara taldea ikustera eta animatzera. Mundu osoko talentuak Zornotzan batzeko ahalegin handia egin dute, eta denok bat gara Zornotzaren alde.

T.B.: Bai, etorri daitezela animatzera!

Aurrekoetxea eta Urizar dira favorito gaur, Durangon jokatu diren esku pilota finaletan

Cafés Baqué Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte gaur, Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan

> PILOTA Joseba Derteano

Kadete mailako eta gazte mailako XXIX. Cafés Baqué Pilota Txapelketako irabazleak Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan erabakiko dira gaur, 19:30etik aurrera. Buruz buruko finalek ez du hautagai argirik, baina orain arteko bidea ikusita, kadeteetan Mikel Aurrekoetxea eta gazteetan Mikel Urizar dira irabazteko favoritoak.

Kadeteetako finalean, Mikel Aurrekoetxea aurrelari lemoarrrak Beñat Martitegi atzelari sestaoarra izango du aurkari. Batak zein besteak nagusitasunez irabazi zituzten finalaurrekoak Barturen eta Garciaren aurka, eta merezita heldu dira finalera. Aurrekoetxea sake-errematea baliatzen saiatu daiteke; badaki pilotaren bila joaten eta airez ondo bihurtzen; Martitegik, aldiz, sendo egon beharko du erretoan; pilotari garaia da, beso luzeak ditu, eta bere palanka handiari ahalik etekinik handiena ateratzea izango da bere eginbehar nagusia.



Iaz Durangoko pilotalekua lepo bete zen finalak ikusteko.

Gazte mailan Mikel Urizar markinarra eta Markel Esain gernikarra izango dira aurrez aurre. Esainek finalerdiak jokatuta barik lortu zuen finalerako txartela, Arrizabalaga eskuko

minez zegoelako. Urizarrek, aldiz, erraztasun handiz kanporatu zuen Basabe sestaoarra: 22-2.

Bi pilotariak atzelariak dira. Urizarrek pilota gehiago luzatzen du, eta hori arma esangu-

ratsua da buruz buruko partiduetan. Esainek defentsan lan handiagoa izango duela dirudi. Pilota asko eramaten baditu eta kantxan azkar ibiltzen bada, irabazteko aukera izan dezake.

Tabirako-Baqueren bi talde nagusiek irabazi egin dute

Emakumeek 54-58 irabazi dute Portugaleten

> SASKIBALOA

Iazko denboraldian lehen zati kaskarra osatu zuen Tabirako Baqué gizonen talde nagusiak. Bigarren itzuli oso ona osatu arren, hasierako porrotak harlauza astunegia izan ziren helburuak lortzerako orduan. Aurten, Iskander de Dios entrenatzailearen aginduetara, garaipen batez hasi du denboraldia. Joan zen asteburuan 78-84 irabazi zuen taldeak Ordiziara egindako bisitan. Zapatu honetan Zarautz taldearen bisita jasoko du, 19:00etan.

Emakumeen talde nagusiak ere irabazi egin zuen denboraldiko estreinako partiduan, Portugaleteren kantxan: 54-58. Iazko liga txapelduna aurten ere goian ibiltzeko hautagai sendoa dela erakusten ari da, Jesus de Vicenteren gidaritzapean. Domeka honetan, 12:00etan, Gasteizko Araski taldearen bisita jasoko du Landako kiroldegian. Gasteiztarrek porrot batez hasi dute denboraldia; mailaz igotzeko favoritoetakoa den Bera Bera erraz nagusitu zitzaizen: 42-75.

Liderra menderatu ostean, bigarren kokatu da DRT

Lau jardunalditan hiru partidu irabazi ditu

> ERRUGBIA

Durango Rugby Taldeak indartsu hasi du Ohorezko B Mailako denboraldia. Lau jardunaldi joan dira, eta Ines Etxegibelen taldeak oraindik ez daki galtzea zer den: hiru partidu irabazi ditu, eta bat berdindu. Ondorioz, sailkapeneko bigarren postuan dago, Burgos liderrarengandik puntu bira.

Joan zen asteburuan, orduan arte lider zegoen Bera Bera menderatu zuen Durangoko taldeak Arripausuetan: 26-22. Iker Hercek, Sabin Goitik eta Mikel

Blancok entsegu bana lortu zuten. Gaizka Iturriaga ere zehatz ibili zen zigor kolpeak gauzatzeko orduan. Orain arteko lau partiduetan hemeretzi entsegu lortu ditu DRTk, eta hirugarren postuan dago entseguei dago kienez, Uribealdea (20 entsegu) eta Zarautz (23) taldeen atzetik.

Irabazitako beste partiduak Belenos (31-10) eta Bathco (5-53) taldeen aurkakoak izan dira. Quesos Entrepinares taldearen aurka 20-20 berdindu zuen. Hurrengo partidua Eibarren kontrakoa izango da, urriaren 19an.

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia

EHko mendi lasterketen selekzioko hautatzailea

Neskentzako mendi lasterketa

Gaur egun gero eta emakume gehiago ikusten da kirola egiten, batez ere korrika. Baina ez urte sasoi honetan bakarrik, Behobia-Donostiaren eraginez. Neska korrikalarien kopuruak urte osoan egin du gora. Erruz, gainera. Orain dozena bat urte, adibidez, ez zen oso ohikoa hainbeste ikustea.

Euskal Herrian lasterketa asko eta asko antolatzen dira. Ia asteburu dago baten bat, bai errepidean, bai mendian, baina lasterketetan emakumearen parte-hartzeak ez du halako gorakada izan. Gizonezkoekin alderatuta, oraindik oso neska gutxi ematen du izena lasterketetan.

Ildo horretatik sortu da aurten, lehen aldiz, neskentzako mendi lasterketa Sunbilla. Irail hasieran izan zen, eta neskek bakarrik parte hartu ahal izan zuten bertan. Arrakasta itzela izan zuen. Hiru mendi lasterketa antolatu ziren guztira, 6 km-koa, 21ekoa eta 42koa. Horieta gainera, mendi mar-txa eta umetxoaren lasterketa ere egon ziren. Neska eta emakume askok hartu zuen parte, jakina. Jai bat izan zen azken finean, emakumearen aldeko jai zoragarria.

Kritika onak izan ditu batez ere ekimen honek, baina txarren bat edo beste ere egon da. Nire ustez, zoritxarrez, oraindik beharrezkoa da honelako ekimenak egitea emakumea behar den bezala baloratzeko eta kirol mundura bultzatzeko. Etorkizunean era honetako lasterketek zentzurik ez balute, askoz hobeto.



MACOBER

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA

Eitua industriagunea, 66

Tel./Faxa: 946 827 890

48240 Berriz (Bizkaia)

macober@movistar.es

Zeramika eta gresa




Plateruen plaza, 12

48200 Durango

Tel.: 946 811 006

TOURNEO COURIER BERRIA

1.0 EcoBoost 100 ZP ingurumena



**8.990.00 eurogatik bakarrik
...eta FORD bat da, gainera.**

FORDKONDIA
Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK
Santa Maña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135



Anboto Kilometro Bertikala, erronka gogorra bezain berezia

Arrazolatik Anbotora, 14:00etatik 18:00etara bitartean irtengo dira korrikalariak bihar

> MENDI LASTERKETA M.O.

Gogortasuna, kondaira, paisaia... Anboto Kilometro Bertikalak badauka zerbait berezia, mendiak berak bezala. Mariren etxea konkistatzeko asmoa edukiko dute bihar hainbat mendizalek, erronka gogor eta berezi honetan parte hartuta. Arrazolatik Anboto puntara doan bide-rik laburrena hartuko dute, eta ahalik eta denbora gutxienean igotzen saiatuko dira. Erronka itzela, bizitzeko zein ikusteko.

14:00etatik 18:00etara bitartean irtengo dira mendi korrikalariak Arrazolatik. Erlojupeko proba honetan 3,8 kilometroko ibilbidea edukiko dute aurretik, 1.092 metroko desnibel positiboagaz. Igoerako errekorra, gizonen mailan, Marco de Gasperi italiarrak dauka, 37 minutu eta 14 segundogaz. Emakumeetan, Oihana Kortazarrek dauka, 47 minutu eta 10 segundogaz. Marka horiek hautsiko ote diren, hor ere badago morbo apur bat. Zaila izan arren, ahaleginduko dira.

Asuntze mendi taldekoek antolatzen dute lasterketa, uda-

laren laguntzagaz, eta aurtengoa zazpigarren edizioa izango da. Antolatzaileek aurreratu dutenez, Iñigo Lariz, Anartz Etxebarria, Oihana Azkorbebeitia eta Nerea Amilibia izango dira proba irabazteko faborito nagusiak. Guztira, 220 korrikalaritik gora ibiliko dira Anbotoko igoeran.

Zaletasuna sustatzen

Alde lehiakorraz gainera, mendiko kirolekiko zaletasuna sustatu gura dute. Antolatzaileek adierazi dutenez, mendiko kirola ardatz izanda, jendea jai giroan batzea da helburua. Gainera, elitez kanpoko kirolariak ere animatu dituzte. Korrikalari onenak bertan izatea gustuko izan arren, kirol herrikoia ere maite dutela adierazi dute, eta parte hartzera animatu dituzte kirolari eta mendizale arruntak. Sailkapenaz harago, norbere erronka ipini, eta maila neurtzeko balio ahal duela uste dute.

Hori guztia, Atxondoko inguru ikusgarrian biziko da. 18:30ean esango dute nortzuk diren Anbotoko konkistatzaileak.



Iñigo Lariz, iazko irabazlea, izango da faboritoetako bat.

Elorrioko Buskantzak derbi bi asteburuan

Sasikoaren eta Mallabiaren kontra jokatu dute



Elorrioko Buskantza B, Bilbon jokaturako partiduan. Gorafs.

> ARETO FUTBOLA J.D.

Areto futbolearen hainbat derbi jokatu dituzte asteburuan, eta horietako bitan Elorrioko Buskantza izango da protagonista. Hirugarren Mailako bigarren jardunaldian, Sasikoa eta Elorrioko Buskantza neuruko dira zapatuan, 18:15ean, Landakon.

Bigarren derbia maila bat beherago izango da, Euskal Ligan. Elorrioko Buskantza B

taldeak Mallabiaren bisita jaso du zapatuan, 18:00etan. Mallabiarentzat bigarren derbia izango da segidan. Joan zen asteburuan, ligako estreinaldian, Berrizko Presion Break taldearen kontra jokatu, eta 2-8 galdu zuen. Elorrioko Buskantza B-k ere galdu egin zuen Bilbon.

Lehen Erregionalean ere derbia jokatu dute Elorrioko Txikik eta Abadiño Gatzetxiek, bihar, 16:00etan.

Durangaldeko korrikalariak nagusi Sorginen Lasterketan

Ariznabarretak eta Azkorbebeitiak irabazi zuten

> MENDI LASTERKETA J.D.

Joan zen asteburuan, Atxondon hasi eta amaitu zen Sorginen Lasterketan Durangaldeko korrikalariak izan ziren protagonistak. Gizonetan, podiumeko hiru postuak Durangoko korrikalariak izan ziren: Oier Ariznabarreta (2.03.41), Julen Ozaeta (2.05.11) eta Ekaitz Kortazar (2.07.59). Emakumeetan Oihana Azkorbebeitia izan zen irabazlea (2.30.22). Sorginen Lasterketan parte hartzen zuen

lehen aldia zen Abadiño korrikalariarentzat. Alizia Olazabalek eta Maria Zorrozk osatu zuten podiuma.

Bestetik, orain arteko aldi guztietan parte hartu duten korrikalari biei oroigarri bana eman zien antolakuntzak: Asier Alonsori (Berrizen bizi den atxondarra) eta Patxi Ros bilbotarrari. Alonsok zortzigarren egin zuen; Ander Gerrikaetxebarria zornotzarra zazpigarren tokian sailkatu zen.



Podiuma maila askotako irabazleekin.

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Sondika
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain.

Elorrio - Retuerto

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA

Abadiño - Baskonia B

· Zapatuan, 16:30ean, Astolan.

LEHEN ERREGIONALA

Ezkurdi - Peña

· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.

Berriz - Etxebarri

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Amorebieta B - Atxulaur

· Zapatuan, 17:30ean, Txolonen.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa Durango - Elorrioko Buskantza

· Zapatuan, 18:15ean, Landakon.

EUSKAL LIGA

Presion Break - Eraso Aiara

· Zapatuan, 16:45ean, Berrizko kiroldegian.

Elorrioko Buskantza B - Mallabia

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

Sapuberri - Kukuyaga

· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

MAILA GORENA

Sasikoa B - Zamudio

· Zapatuan, 19:55ean, Landakon.

LEHEN ERREGIONALA

Elorri Txiki - Abadiño Gatzetxie

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

Mallabia B - Gernika

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian.

EMAKUMEEN LIGA

Elorrioko Buskantza - Enkarterri neskak

· Domekan, 12:30ean, Elorrioko udal kiroldegian.

Sasikoa - Leioa Maia

· Zapatuan, 15:45ean, Landako kiroldegian.

> SASKIBALOIA

LEHEN MAILA (gizonak)

Tabirako Baqué - Zarautz

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako Baqué - Araski

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baqué - Unamuno

· Zapatuan, 16:45ean, Merkatu plazan.

BIGARREN ERREGIONALA

Zornotza - Unkinako

· Domekan, 16:30ean, Ixerbekoan.

LEHEN ERREGIONALA

Zornotza - Aguila Salde

· Domekan, 10:00etan, Ixerbekoan.

Julza-Zaldia - Salesianos

· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian.

Tabirako Baqué - Maristas

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

IRAKURKETAREN GARRANTZI GORENA [eta II]

Irakurketa, bere dimentsio, garrantzi, ondorio eta esanahiagatik, gizakia gartzeko gauza izan den gaitasunen artean, zalantza izpirik gabe, trebetasun intelektual nagusi eta gorena dugu.

Egun bizi dugun XXI. gizaldiko herri-tarrek jakintza funtzionaletan hezita egon behar dute. Jakintza funtzional horiek ezagutzak eta trebetasunak osatzen dituzte eta, egun, erabat beharrezko dira gaurko gizarte jardueraren eremu askotan parte hartzeko. Adibide gisa, lan arloan egokitzen asko behar dira, etengabe eguneratu beharra dago, eta jarraitortasunezko heziketa ere funtsezko ekimena da, guztiak ezinbestean garatu beharreko eremuak izanik.

Inguru horretan, irakurketa gaitasuna funtsezko gaitasuna dugu, lehen mailakoa, gaitasunen artean mailarik gorenean kokatzen dena eta eguneroko bizitzan darabilzkgigun trebetasunen artean gutxienez gure denboraren %80 edo gehiago eskaintzen diogun trebetasuna. Esandako horretan guztian dautza irakurketaren garrantzi gorenenaren zio edota arrazoi nagusiren batzuk.

Sarritan irakurketa gaitasunez hitz egiten dugu, etengabe aholkuak ematen ausartzen gara eta irakurzaletasunaren garrantziaz dihardugu, baina egindako ahozko adierazpen guzti horiek ez baldin badira irakurtzeko gure ohitura amorratuan oinarritzen, lortu nahi dugun ondorioaren aurkakoa besterik ez dugu, onenean, lortuko.

Europako Batasuneko Hezkuntzarako Kontseiluak 2006. urtean, alde batetik, ahozkototasuna eta ulermena eta, bestetik, idatzizko adierazpena eta ulermena barne hartzen dituen ama hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna, funtsezko zortzi gaitasunetatik bat dela aitortu zuen. Gaitasun hori, gizaki orok bere garapen eta bilakaera pertsonalerako, herriartasun aktiborako, gizarteratzeko eta enplegurako ezinbestean behar duen gaitasuna da.

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna, irakurgaitasuna barne, beste gainerako gaitasunekin lotuta dago, hainbatekin helburu berdinak izanik. Europako Batasuneko Hezkuntzako Kontseiluak, irakurketa gaitasuna, eskola eremutik haratago ezinbesteko betebeharra dela aitortu du, beharrezko, ezinbesteko baita gero eta konplexuagoa den gure gizarte honetan helduen bizitzako askotariko eremuetan arrakastatsu parte hartzeko eta bizitzan zehar etengabe ikasten jarraitu ahal izateko.

Irakurketa gaitasuna, irakurketaren eremutik haratagoko gaitasuna dugu. Irakurketarako gaitasuna izatea, besteak beste, gizartean parte hartzeko, nork bere jakintza eta ahalmenak gartzeko, eta norbere helburuak lortzeko, idatzitako testuekin konpromisoa hartu, oldozmen biderako lanabes izan, erabiltzen jakin, ulermen jasoa izan eta azkar irakurtzeko ahalmenak izatean datza.

Irakurtzean zenbat eta trebetasun gehiago erabiltzen ditugun, are eta hobeto irakurtzen dugu. Ezinbestekoak di-

tugu, ikusmen trebakuntzak, entzume-nezkoak, hizkuntzazkoak baina, guztien gainetik, ulermenezkoak. Horiek guztiak ezinbesteko trebetasunak ditugu.

Irakurgaiak ulertzeko behar beharrezkoa dugun beste trebetasunetariko bat kodifikazio semantikoa edo hitz bakoitzak dituen esanahi ugariatatik bakar bat aukeratzen jakitea da, testuinguruaren arabera dagokionik egokiena hautatzea alegia.

Beste elementu garrantzitsu bat irakurketei buruz bakoitzak duen aurretiazko ezagutza izaten da. Jakina, irakurtzen dugun informazioa ulertu eta gogoratzeko ezinbesteko da jasotzen dugun informazio berria gure epe luzerako memorian ditugun eskemekin erlazionatzea. Gure lexiko pertsonalera hurbilketa hori egin dezakegun guztietan, hitzen ezagutza askoz hobea izaten da.

Hitzak ezagutzeak, hizkuntzaren gero eta ezagutza zabalagoa izatean, hizkuntzaren aberastasuna gero eta nabarmenagoa izatean, hitzak osatzen dituzten letren kodifikazioa hobea izaten da.

Irakurketarekiko konpromisoa, gela sortutako ikasketetarako giroaren arabera da, baina baita ikasleek irakurgairen bat irakurri, ulertu eta irakurgaiarekin euren aukeren barruan dagoen zerbait egiteko duten gaitasunarekiko konfiantzan ere oinarritzen da. Konpromiso hori, ikaslearen interesak behera egiten duenean edota ikasleari agertzen zaizkion zailtasunak gaindiezinekotzat jotzen dituen ikas-prozesuan zehar irakaslearengandik ikasleak jaso dezakeen laguntzaren arabera da. Ulermen prozesuak, bere konplexutasunagatik, irakurtzeko zioa behar du eta emozio sistema baten oinarritutako arauketa-moldeak behar ditu.

Ikastetxeen zereginetariko bat, kurrikuloan diren ikasgai eta jakintza eremuetako ikaskuntza egoeratan irakurtzen ikasteaz gain, irakurketarekin zerikusi zuzena duten ondorengo bi hizkuntza-beharrizanok garatzea litzateke: alde batetik, irakurzaletasuna, ekintza pertsonal eta askea den neurrian, sustatu beharra. Eta bestetik, ikasleen gaitasun literarioa garatzea.

Irakurmen-gaitasunak, beraz, etengabeko arreta, hobekuntza eta jarraituko berreziketa behar ditu irakaskuntzako maila guztietan. Zorritzarrez ez da horrela. Araututako irakaskuntza ofizia-

lak irakurgaitasun urridun irakurleak prestatzen ditu, ulermen maila gutxi-koak eta, ondorioz, irakurketarekiko hutsaren hurrengo zaletasun maila dutenak. Hori, ez da bidea. Horrela, oker goaz.

Esandako guztitik eratorri daitekeen ondorioa, aipatu egoera larri horien eraginez, adin eta tankera guztietako ikasle [unibertsitateko ikasleak barne] kopuru izugarriaren ikas-prozesua, euren kalterako, sustraitik erabat jota aurkitzen dela ikustea da, sarritan konplexutasun kezkarri eta garrantzi handiko egoerak ikasleek ekarri.

Irakurzaletasunak, irakurketak, gogo-aldarte eta barne-ongizate sakona sortzen ditu. Keith Oatley psikologo ingeles adituak, ehun pertsonen emozio egoerengan irakurketa-ohiturak nolako ondorioak sortzen zituenarekiko azterketa sakona egin ondoren, irakurketak izaera, emozioak eta nortasuna ere aldatu egiten dituela ondorioztatu zuen, eguneroko irakurtzeko ohitura dutenek emozioak hobeto jaso eta erraztasun handiz bere egiten dituztela adieraziz.

